Atxikallende, Ibon Bilbao, Almike Alonso
- B maila: Peio Gerrikaetxebarria, Aymane Gassas, Peru
Apodaka, Asier Beitia
- D maila: Lurdes Ondaro, Eneko Torre, Ibai Abaunza

Gaztelekuko Bertso-paper Lehiaketa (6. 2015. Oñati)

BDB fitxa:

<http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/gaztelekuko-bertso-paper-lehiaketa-6.-2015.-oati>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Oñati

Antolatzailea: Oñatiko Bertso-Eskola (Karrika)

Saridunak:

LH sailean:

1. Unai Prieto – Urgain Eskola, 6.maila
2. Jon Maiztegi – Txantxiku Ikastola, 6. maila
3. Ousmane Bah – Txantxiku Ikastola, 5.maila

4. Ane Kortabarria – Txantxiku Ikastola, 6. maila
5. Maddi Altolagirre eta Paula Polo – Elkar Hezi, 6. maila

DBH – Batxilergo sailean:

1. Malen Osa - Txantxiku Ikastola, DBH 1
2. Haritz Olaeta – Elkar Hezi, DBH 2
3. Urko Arregi – Zuazola Larraña Institutua, DBH 4

Getariako Literatur Lehiaketa (14. 2015. Getaria)

BDB fitxa:

<http://bdb.bertsozale.eus/id/web/aldizkakoa/view/2289-getariako-literatur-lehiaketa-14.-2015.-getaria>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Getaria

Antolatzailea: Getariako Udala

Saridunak:

4. maila. Olerkia / Bertsoa:

Amets Aizpurua Mancisidor, “Bertsolaria naiz”

Helduak. Olerkia / Bertsoa:

Uxoia Irigoien Odriozola, “Bizit(z)ea”

Ibon Zabala Saria (17. 2015. Erretereria)

BDB fitxa:

<http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2242-ibon-zabala-saria-17.-2015.-erretereria>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Erretereriako Bertso-Eskola (Xenpelar), Lau Haizetara Elkarte

Saridunak:

1. saria: [Naroa Agirre](#) (Urnieta): “Inposaketa”
2. saria: Aner Peritz Manterola (Zarautz): “Zarautz”

**Iparragirre Saria : Bertso, Narratiba Eta Poesia
(2015. Zumarraga-Urretxu)**

BDB fitxa:

<http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2230-iparragirre-saria-bertso-narratiba-eta-poesia-2015.-zumarraga-urretxu>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Urretxuko Udala; Zumarragako Udala

Saridunak:

- 16 urte arteko maila (0 lan aurkeztuta): hutsik
- 16 urtetik gorako maila (9 lan aurkeztuta):
 1. saria: Ekaitz Goikoetxea Asurabarrena, “Urrian abendu bada”.

**Irungo Eskolarteko Bertso-paper Lehiaketa (2. 2015.
Irun)**

BDB fitxa:

<http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/irungo-eskolarteko-bertso-paper-lehiaketa-2.-2015.-irun>

Kokapena: Irun

Hedadura: Irun

Antolatzailea: Irunabar Irungo Bertsoaren Bilgunea

Saridunak:

LH 4:

Sari nagusia: Xabier Etxebeste Varela, Txingudi Ikastola.

LH 5:

Sari nagusia: Idoia Gonzalez, Ruben de la Fuente,

Marla Granero, Iker Amantegi, El Pilar 5.A
Aipamena: Iraia, Miriam, Milena, Zuriñe, Dunboa 5. A

LH 6:

Sari nagusia: Irati Esandi, Eguzkitza ikastetxea.
Aipamenak: Carla Martinez, Aida Justo. Dunboa, 6.A;
Elena Romero, Irene Barreiro, Laura Cuadrado, Paula
Magalhaes, Jon Martinez. Belaskoenea, 5.D eta 6.D

DBH:

1. Saria: Igauri lopetegi, Txingudi Ikastola(DBH2)
2. Saria: Peio Iriarte, Toki Alai – Gaztelu Zahar
(DBH3F)
3. Saria: Osane Amiano Galdos, Toki Alai – Gaztelu
Zahar (DBH1C)

“Joxean Ormazabal” ipuin, bertso eta marrazki lehiaketa (12. 2015. Segura)

BDB fitxa:

<http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/joxean-ormazabal-ipuin-bertso-eta-marrazki-lehiaketa-12.-2015.-segura>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Segura

Hedadura: Segura

Antolatzailea: Elorri Kultur Elkarte

Saridunak:

Koldo Eleizalde Literatura Lehiaketa (30. 2015. Bergara)

BDB fitxa:

<http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/koldo-eleizalde-literatura-lehiaketa-30.-2015.-bergara>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Bergara

Hedadura: Bergara

Antolatzailea: Bergarako Udala. Euskara

Saridunak:

1. taldea: Iñaki Aldazabal Lete: “Finalaren bila”;
Maider Iribecampos Domenech: “Jatekuak”.
2. taldea: Nagore Otadui, Paula Palacios, Aitor Elkorro:
“Bergarako herria”.
3. taldea: Maddi Txintxurreta Agirregabiria: Euskal
Herri feminista.

Koldo Mitxelena Literatur Saria (26. 2015. Donostia)

BDB fitxa:

<http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2291-koldo-mitxelena-literatur-saria-26.-2015.-donostia>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Donostia

Antolatzailea: Donostiako Euskararen Udal Patronatua

Saridunak:

C kategoria:

Oihane Arribas bahun: “Nire familia eta ni”

D kategoria:

Ainhoa Montserrat Dominguez: “Itxaropena galduta”

E kategoria:

Asier Ibarguren Amondarain: “Kolorez kolore”

F kategoria:

Garoa Gomez Beldarrain: “Urtarrilak 7, albistegia”

Lazkao-Txiki Bertso-paper Lehiaketa (24. 2015. Ordizia)

BDB fitxa:

<http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2213-lazkao-txiki-bertso-paper-lehiaketa-24.-2015.-ordizia>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Argi Berri Elkarte

Saridunak:

Helduen mailan:

1. Karmele Mitxelena: “Itsasoko bakardade”
2. Amaia Agirre: “EMEndakinak”
3. Aitor Albistur: “%3”

Gazteen mailan (14-18 urte):

1. Idoia Granizo “Maitasunaren jolasean”
2. Maddi Aiestaran
3. Ekain Alegre

Medicus Mundiren Bertso-paper Lehiaketa (1. 2015. Donostia)

BDB fitxa:

<http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/medicus-mundiren-bertso-paper-lehiaketa-1.-2015.-donostia>

Kokapena: Donostia

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Medicus Mundi. Gipuzkoa

Saridunak:

1. Eider Perez Martinez
2. Iñigo Legorburu Arregi
3. Amaia Goirena Boyrarena

Okelar Saria (30. 2015. Mutriku)

BDB fitxa:

<http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2237-okelar-saria-30.-2015.-mutriku>

Kokapena: Mutriku

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Mutrikuko Bertso-Eskola (Goizeko Izarra)

Saridunak:

Gazte mailan:

Sari nagusia: Aner Peritz

Mutrikuarren sari berezia: Mikel Galarraga

Epaimahaiaren sari berezia: Izaro Agirrebengoa

Helduen mailan:

Sari nagusia: Iñigo Andonegi

Mutrikuarren sari berezia: Juan Mari Agirrezabala,
“Erdikua”

Epaimahaiaren sari bereziak: Xabier Astigarraga,
“Mahastizahar” eta Iñigo Legorburu

San Andres Bertso-paper Lehiaketa (21. 2015. Eibar)

BDB fitxa:

<http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2231-san-andres-bertso-paper-lehiaketa-21.-2015.-eibar>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria, Eibar

Antolatzailea: Eta Kitto! Euskara Elkarte

Saridunak:

16 urtetik gorakoak:

1. Eli Pagola

2. Iñigo Legorburu

16 urtetik beherakoak:

1. Ainhoa Bizkarra

2. Peru Alberdi

San Antontxu Bertso-paper Lehiaketa (17. 2015. Mungia)

BDB fitxa:

<http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/san-antontxu-bertso-paper-lehiaketa-17.-2015.-mungia>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Bizkaia

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Mungiako Bertso-Eskola (Taket)

Saridunak:

Gazteak

1. Saria: “Eledun” (Mikropean). Aitor Servier Etxexuri (Azkain)
2. Saria: “Berriroriz” (Paik). Iker Elortegi Garcia (Gatika)
3. Saria: “Jaiduren jarraidura” (Matematikak). Aitor Servier Etxexuri (Azkain)

Helduak

1. Saria: “San Filipporekin borrokan” (San Filippo).
Iñigo Legorburu Arregi (Orereta)
2. Saria: “Gutuna Jon Lopategiri” (Zaponarru). Miren Ibarluzea Santiesteban (Mungia)
3. Saria: “Bakarrik” (Solus). Aitor Albistur Pulido (Orereta)
- 3.1. Saria: “Bizitzaren ibilbidea”. Josu Gotzon Landeta Egurrola (Getxo)

Aipamenak

Gazteak

- Malen Iturregi (Gamiz)—“Hotza dugunez hartuko dugu”.
- Olaia Cancelo (Gatika)—“Gatikarra”

Helduak

- Aimar Larrazabal (Jatabe)—“Zoriontasunera bidea”
- Markel Enzunza (Arrieta)—“Erabakitze eskubidea”
- Beñat Barainka (Arrieta)—“Amamatxo Josefiña”
- Bittor Eguzkiza (Mungia)—“Badago herri honetan”

San Telmo Literatur Saria (32. 2015. Zumaia)

BDB fitxa:

<http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2292-san-telmo-literatur-saria-32.-2015.-zumaia>

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Zumaia

Antolatzailea: Zumaiko Udala

Saridunak:

L.H 4 Maila: Maddi Amilibia Larrañaga, "...izatea gustatuko litzaidake"

L.H 5. Maila: Naia Cartier Lizarralde, "Abenturazalea izan nahiko nuke"

L.H 6. Maila: Malen Emezabal Aldalur, "Internet eta telefonorik ez"

DBH 1. Maila: Eire Salegi, "Zulaika Atzera begira"

DBH 2. Maila: Erika Urain Cintero, "Bizitzaren beste zatia"

DBH 3. Maila: Aiora Gutierrez Cintero, "Lagun maitea"

DBH 4. Maila: Peio Etxabe Arregi, "Udaberria"

Santixabel Bertso-paper Lehiaketa (39. 2015. Usurbil)

BDB fitxa:

<http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/santixabel-bertso-paper-lehiaketa-39.-2015.-usurbil>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Usurbil

Antolatzailea: Usurbilgo Udala

Saridunak:

1. Imanol Zarautz 'Troia', "79 kilometro eta 20 herri".

2. Uxue Fernandez, "Laurogei urte, amona".

3. Jon Aizpurua, "Dirua alkate"

Urretxu eta Zumarragako Eskolarteko Bertso-paper Lehiaketa (28. 2015. Urretxu-Zumarraga)

BDB fitxa:

<http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/urretxu-eta-zumarragako-eskolarteko-bertso-paper-lehiaketa-28-2015-urretxu-zumarraga>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Urretxu-Zumarraga

Antolatzailea: Zumarraga-Urretxuko Bertso-Eskola

Saridunak:

A maila:

1. Aitor Cantero Lizarralde
2. Maddi Urbizu Altzelai
3. Unai Fragua Breñaña

Aipamenak: Julen Cantalapiedra Zoilo, Malen Badiola Intsausti, Izaro Lesaka Txintxurreta, Irati Agirrebengoa Zabaleta, Ane Emparanza Etxaniz, Naroa Altolagirre Villafranca, Igone Aldama Urteaga, Erin Lopez Hernandez, June Arozena Dominguez, Elena Barrenetxea Gonzalez, Asier Urkiola Urmeneta, Naiara Amenabar Moya

B maila:

1. Alaitz Lopez Gonzalez
2. Ainhoa Unanue Bereziartu
3. Haritz Chico Izagirre

Aipamenak: Laura Carrasco Lasa, Unai Gastañares Inza, Alazne Idigoras Egea, Unai Arratibel Llorente, Amaya Udabe Randriamanpandri, Haritz Vazquez Mendizabal

D maila:

1. Sara Bidarte Begiristain

Aipamenak: Iker Arranz Amundarain, Eukén Garmendia Bernabé, Iker Goiburu Lete

Xabier Munibe Bertso-paper Lehiaketa (24. 2015. Azkoitia)

BDB fitxa:

<http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2196-xabier-munibe-bertso-paper-lehiaketa-24.-2015.-azkoitia>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Urola Kosta

Antolatzailea: Indarlan Guraso Elkartea (Xabier Munibe Ikastola) ; Udaberri Guraso Elkartea (Xabier Munibe Ikastola)

Saridunak:

DBH 1. eta 2. mailan:

1. Aner Perez, “Saharara Bidaia”.
2. Oihana Arana, “Minbizia”.
3. Joanes Errausti, Jokin Errazu eta Abdelilah Locif, “Pobrezia Munduan”.
4. Jakes Iraeta, Luken Arellano eta Joanes Arriola, “Oporrak”.

DBH 3. eta 4. mailan:

1. Ane Beloki, “Denetik Ezerezera”.
2. Ane Odriozola eta Ainhoa Sorazu, “Gazte Zoro”.
3. Garazi Etxanizek, “Azkoitiko Festak”.
4. Alaitz Larrañaga eta Hajar Loucif, “Euskara”.

Aipamena:

Nagore Orbea, “Berdintasuna”.

Zapirain Anaiak Bertso-paper Lehiaketa (27. 2015. Erreterria)

BDB fitxa:

<http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2241-zapirain-anaiak-bertso-paper-lehiaketa-27.-2015.-erreterria>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Errenteriako Bertso-Eskola (Xenpelar), Lau Haizetara Elkartea

Saridunak:

1. saria: Ane Labaka (Lasarte-Oria): “Beranduegi”
2. saria: Aitor Albistur (Errenteria-Orereta): “Herentzia”

Zubeltzu Bertso-paper Lehiaketa (6. 2015. Deba-Itziar)

BDB fitxa:

<http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2294-zubeltzu-bertso-paper-lehiaketa-6.-2015.-deba-itziar>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Deba - Itziar

Antolatzailea: Debako Udala. Euskara ; Zuhatza Kultur Elkartea

Saridunak:

1. LEHEN HEZKUNTZA:

1. saria: Itziar Egaña
2. saria: Lierni Jiménez
3. saria: Elene Molina

2. DBH:

1. saria: Aloña Salegi
2. saria: Itzale Laka
3. saria: Julia Ron

3. NAGUSIAK:

1. saria: Manex Astigarraga
2. saria: Karlos Larrañaga
3. saria: Josune Arakistain

BAT-BATEKO BERTSO HAUTATUAK



Ikasturte amaierako jaialdia

Alegia, 2015-05-25

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

AMURRIO (2015-01-03)

*Bertsolariak: A. Arzallus, S. Colina, I. Elortza,
B. Gaztelumendi, U. Iturriaga, M. Lujanbio
eta A. Mendiluze.*

Gai-emailea: Naroa Sasietak.

Amurrioko Udaleko Kultur Batzordeak bultzatuta, urte mordoska da Txapelketa Nagusiko zortzi finalistekin saioa antolatzen dutela, herriko antzokian, urteko lehen egunetan. Betiko moduan Naroa Sasietak gidatuta, zazpi bertsolari aritu ziren, Aitor Sarriegik kale egin baitzuen aurtengoan.

A. Mendiluze

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13utis>

Gaia: Okina zara. Gero eta bezero gutxiago dituzu eta gaur zure bezero bat ikusi duzu pasatzen, zorroan hipermerkatutik erositako ogi batekin.

Neurria: Hamahirukoa, handiaren moldekoa, 7 puntuz

Doinua: *Bizkorra ez naiz baina badaukat*

Okindegian hasi nintzela
artean mutil gaztea
helburu nuen bizitzarako
lanbide bat ikastea.
Lortu nuen ta geroztik egin
nahikoa irabaztea.
Hori zen lehengo argazki zaharra
oraingoa da bestea
iluna eta tristea (bis)
bezerorik ez, irabazi ezin
ta gertu daukat ixtea.
Lehenago zeinek imajinatu
ogia sobran uztea? (bis)

Okindegiak zutik iraun du
urtetako ahaleginez
baina kezkatzen hasia nago
salmenta datu gordinez.
Alper-alperrik da saiatzea
esperientzia finez
gero libretan ezin badegu
ezer idatzi urdinez
krisiaren eraginez. (bis)
Ogi gogorrai hagin zorrotza
esaera ona zinez!
Okerrago da ogi guria
ta koxka zeinek egin ez. (bis)

Gure ogia jan izan dute
ia auzo gehienez
gure zati bat daukate denek
gogoaren barrenean.
Hala zen baina orain bestera
doaz zuzen-zuzenez
merkatalgune haundietara
prezioen izenez
nere kalte azkenean. (bis)
Ixtera noa bezero zaharrik
ia sartzen ez denez
ta galdetzera etorri baietz
itxita dagoenez! (bis)

S. Colina - I. Elortza

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13uul8>

Puntuak jarritz elkarri. Lehenik Sustrak Igorri eta gero
alderantziz.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Xarmangarria zera I*

S. Colina

Ze desio dituzu
urte berrirako?

I. Elortza

Ezingo dut ba hasi
ni pentsatzen txarto
hala ere umilki
agertu beharko
hurrengo urtean hemen
baldin banaiz nahiko.

S. Colina

Aurten helduko zara
berrogei urtera

I. Elortza

oraingoan lapurtu
ein nahi dit kartera
oso xalatu dator
gaur gure artera
zaharrak bidali nahi
gaitu honek lurpera.

S. Colina

Berrogeiko krisia
nola daramazu?

I. Elortza

Kontuz, ze hurreratzen
hasia zara zu!
Berriz ere gaztetzen
ni hasia nauzu
eta laster gehiago
izango dituzu.

S. Colina

Beti gazte izatea
posible ote da?

I. Elortza

Baietz esan behar nuen
baina *keba, keba!*
Nik nahiago dut joan
urtetan aurrera
askoz txarragoa da
bigarren aukera.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

I. Elortza

Zu ere zahartzen baina
fuerteago zaude.

S. Colina

Ez al dira aldatzen
gorputz ta edade?
Adinarekin dena
ez da ahuldade
hemen indarrrik ez da
gazte izan gabe.

I. Elortza

Burutik fuerte zaude
ta gorputzez nola?

S. Colina

Neurri normaletan
dut kolesterola
gorputza ahul baina
indartsu odola
ta medikuak dio
primeran nagola.

I. Elortza

XILABAKo txapelak
indartu zintuen.

S. Colina

Baionara joan ta
proba egin genuen
nahiz txapela geratu
inoizko gertuen
Igor aitortzen dizut
ondo pasa nuen.

I. Elortza

Ba ni baino argalago
zeu zara bakarra.

S. Colina

Zu argala baitzara
eta ni iharra
nahiz biok mingainean
daukagun indarra
bai zuk ta bai nik dugu
gizendu beharra.

OÑATI (2015-01-05)

Bertsolariak: A. Arzallus, A. Egaña, M. Arzallus, J. Maia, F. Paia eta J. Uria.

Gai-emailea: Irati Sagarzazu.

Errege bezperan urtero antolatzen du saioa Oñatiko Bertso Eskolak. Iaz kiroldegian egin bazuten ere, aurtengoan, ohiko moduan, Zubikoa pilotalekuan.

S. Lizaso – M. Arzallus – A. Arzallus – A. Egaña

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13uvnk>

Gaia: Sebastian eta Amets ertzainak zarete, eta Andoni eta Maddalen guardia zibilak. Kontua da leku berera momentu berean iritsi zaretela. Eta denok kontrola ipintzera.

Neurria: Lauko handia

Doinua: *Kontu barri bat suzedidu da II*

S. Lizaso

Ertzainak etorri ta berdeak
agertu dira kolpetik
gure kontrola jarrita dago
beraz pasa kontroletik.

A. Egaña

Ez zuentzat da gure kontrola
pasatutzeko aukera.
Hori jendeak ederki daki
gu lehenagokuak gera.

A. Arzallus

Ixo Sebastian dardarka nago
orain tokatu da. Bingo!
Espero dut neri ez didatela
alkoholemia egingo.

M. Arzallus

Arrazoi dezu hobe dezute
Pixka't itxita ezpaina
Oñati Euskadi izango da
baino lehenengo España.

S. Lizaso

Irakurtzen ikasteko ere
izan dezute denbora
hizki haunditan hortxe jartzen du
“Guardia Zibilak kanpora”.

A. Egaña

Hala're txapel gorri ta guzti
begiratuta aizue!
Barraketako muñeko baten
tankera osoa duzue.

A. Arzallus

Txapel gorri ta traje urdinez
hala etorri gara gu
Baina pixka bat berotu ezkerro
beltza ere badaukagu.

M. Arzallus

Beraz hizkitan jartzen duena
egingo degu ondo da:
guardia zibilak kanpora goaz
eta ertzainak sutara.

S. Lizaso

Sutara zuek joateko ere
seguru bada aukera
suaren pare erretzen degu
berotzen baldin bagera.

A. Egaña

Hemen geronek agintzen degu
ez jarri txulo planean
Atutxa preso eraman gendun
zuen jefea zanean.

A. Arzallus

Aizu ez al dezu entzun? Gaur gauez
irritiak zion hala:
Perejil uhartean berriro
hiru ahuntz sartu dirala.

M. Arzallus

Lauron artean ze fundamentu
ipini degun begira:
gu eztabaidan ari gera ta
mozkor denak pasa dira.

S. Lizaso

Eztabaida hori ez zen izango
pasa denaren kaltera
baina nik ez nuke mozkortu nahi
inoiz zuekin batera.

A. Egaña

Bueno musean hasi gaitezen
ta ez eman guri lata
zuek bi mamu izan zaitezte
gu bi fantasma gera ta.

A. Arzallus

Baina soinu arraro bat entzun det
ez al dezute ikusi?
Hor ez al doa Andoni Egaña
bere zepo eta guzi?

M. Arzallus

Bai, bai musean hasi gaitezen
jokatzen degu ondradu
zuek karta onak dituzue baina
erregeak guk dauzkagu.

S. Lizaso

Denbora pixka't ere badoa
gu etorri ginanetik
udaltzaingoa badator eta
joan gaitezen hemendik.



Bertso-afaria

Aretxabaleta, 2015-03-13

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

IRUN (2015-01-08)

*Bertsolariak: U. Casado, N. Ibarzabal,
J.Martin eta J. Zelaieta.*

Gai-emailea: Karlos Aizpurua.

Hileko lehen ostegunean bertso-saioa antolatzen du Irunabar Bertso Eskolak, Irungo Kabigorri tabernan. Oraingoan, saioaren aurretik, bertso jarriak abestu zituen Beñat Elosegik.

J.Martin

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13v0q0>

Gaia: Abenduaren 24a da eta gaur ere bakarrik zaude. Dagoeneko hiru talde pasatu dira zure ataritik Gabon kanta kantatuz eta ez diezu aterik ireki. Orain, laugarrena dator, gu guztiok osatzen duguna, eta hasi gara kantatzen. Eta ez dakizu aterik ireki edo ez.

“Hator, hator mutil etxera...” (*entzuleak kantuan hasten dira*)

Neurria: Hamaikakoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Arratsaldeon ta aupa zuek*

Abenduaren hogeita laua
egun handien pareko
izendatu zen eta geroztik
agintzen da ospatzeko. (bis)
Nik haurtzarotik rekuerso txarrak
pilatuak dauzkat lepo
ama ta aita banandu ziren
bikote askoren antzeko
ta etsi nintzen konpleto
batari ezetz esan behar diot
besteai “bai” esateko. (bis)

Garaitsu hontan pasa zen eta
errexazait gogoratzen
hori dela ta Gabonak inoiz
ere ez ditut ospatzen. (bis)
Baina taldeak hurbildu dira
lehen haur talde bat bazen
orain talde bat etorria zait
tinbrea jotzera. Goazen!
Ta hasi dira kantatzen.
Denak etortzen zarete baina
inortxo ez da geratzen.(bis)

Ate ertzean belarria prest
eta entzuna dut adi
ta azken notan ireki egin dut
baneuzkan duda ugari. (bis)
Dirua eta irriparre bat
eman dizuet opari
eta dexente kostatzen zaio
aspaldi galdu zunari.
Begira paradoxari:
gaur kantatzera etorri eta
neuk bukatu dut kantari. (bis)

N. Ibarzabal

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13v2uo>

Gaia: Gure garaian ez zegoen, eta bat-batean ikusi genuen Mari Domingi Olentzerorekin batera, baina ez dakit inoiz galdetu zaion Mari Domingiri gustura dagoen edo... Oraintxe egingo dizkigu bi hitz Mari Domingik.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Azken arnasa eman nahi nuke.*

Orain artean Olentzero zen
gure artean bakarra
baina ez zuten inoiz eman nahi
holako irudi txarra
eta norbaitek ikusi zuen
andrazko baten beharra.
Bere alboan joaten naiz orain
aurpegian irrifarra
beste bateri jarriozue
holako senar baldarra!

Aldatu nahi zen irudiz eta
aldatu nahi zuten garaiz
baina agian hau bihurtu da
Mari Domingirentzat gaitz
nola denborak aldatzen diren
ta aldatzen dugun mintzagaiz
emakumeen izenean on
egin beharra daukat maiz
baina halere bere ondoan
“pegote” bat sentitzen naiz.

Mari Domingik zer egiten du?
Ba inork ez daki jakin
ze ume denak Olentzerogaz
daude ekin eta ekin.
Ta dagoeneko ni aspertu naiz
gure paripe honekin
hurrengoan utzi niri ateratzen
nire kabalgatarekin
edo bestela utzi liatzen
Anbotoko Marirekin.





Antzokian

Amurrio 2015-01-03

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

ZEANURI (2015-01-18)

Bertsolariak: S. Colina, A. Egaña, I. Elortza, On. Enbeita, U. Iturriaga eta E. Lekue.

Gai-emailea: Eñaut Intxaurreaga.

Hamaikagarren aldia da jaialdia antolatzen dutela Zeanurin. Aurten, igande arratsaldeko seietan izan zen, pilotalekuan. Urtero errepikatuz ohitura bihurtzen ari zaizkien ariketak ere egin zituzten aurtengoan: bertako berben esanahia asmatzea, segidilla egitea...



Korrika Kulturala

Donostia 2015-01-08

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

U. Iturriaga – I. Elortza

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13v414>

Gaia: Zuek bi guraso zarete. Gaur ere bueltatxoan egin duzue bakoitza bere umetxoarekin, eta kafea hartzerakoan hausnartzen egon zarete. Ze Euskal Herritara, nora ekarri ditugu gure haurtxoak?

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Zeru altuan zegoen Jaunak*

U. Iturriaga

Inoiz pentsau dot izango diren
etorkizun baten jabe
ze lan, ze herri eta ze mundu
euko daberen parez pare
positibotik pentsetan hasi
beharra deukot halanbe
guk hankaz gora jarri doguna
eurek konponduko dabe.

I. Elortza

Euskal Herria dagoen lez da
mundua dana izanik
gure umeak ez dira haziko
gero be problema barik
baina laguna, ume ginela
ezagutu nebana nik...
Zu positibo baldin bazagoz
nik ez daukat zalantzarik.

U. Iturriaga

Positiboez jakin badakit
ein beharko dabela lana
ta ezin dira begiak itxi
eta ahaztu iragana
baina halanbe iruditzen jat
aukera kontua dana
ia izaten dan belaunaldi bat
kartzelara joango ez dana.

I. Elortza

Bat nagusitzen danean Unai
bada hainbat kontu bitxi
zeuk esan legez izan daiteela
neuk be bardintsu iritzi
baina badago beste kontu bat
ez deustana ardura gutxi:
umeri ze mundu itxi baino
munduai ze ume itxi.

U. Iturriaga

Geuk gura arren umeak ezin
dira fabrikau neurritara
geu be zer garen nundik gatozen
Igor oraintxe begira
ta gurea be konpondu baietz
hainbesterako ez da tira!
Putakumeak lehen baegozan
ta gero be egongo dira.

I. Elortza

Gatxa dogu bai lehen, orain, gero
moldatzea gizartean
nahiko gatxa da norberarekin
be egotea bakean
hezi daiguzan bizi daitezan
euren ametsak betean
kartzela barik ta moldatzeko
lez putakume artean.

TOLOSA (2015-01-24)

*Bertsolariak: M. Amuriza, A. Arzallus, S. Lizaso,
M. Lujanbio, J. Maia eta A.M. Peñagarikano.*

Gai-emailea: Amaia Agirre.

Leidor antzokia erabat beteta beste urte batez (850 lagun).
Atariak (Tolosaldeko komunikazio taldeak) antolatutako
jaialdia arrakastatsua izan zen. Bizia eta atsegina. Andoni
Egaña zegoen iragarrita, baina ez zuen joaterik izan, eta haren
ordez Jon Maia aritu zen kantuan. Gai batzuk osatze aldera
pantailan irudiak baliatu zituzten eta bertsoaldi bat Tomas
Lizardi gitarra-joleak lagunduta egin zuten.

M. Amuriza

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13v53g>

Gaia: Bertso Egun batean, Maddalen Arzallus lagun zenuela, amari
bertso hunkigarri batzuk eskaini zenizkion, eta Pirritx eta
Porrotxen kantu baten letra zurea da, ume txiki batek amari
eskaintzen diona. Galdera da ea gaiak kezkatzen zaituen,
amatasunak alegia.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *Baserrian jaio nintzan /Habanera*

Musikaria: Tomas Lizardi

Maddalen ta nik pentsatu
 gendun mahai bueltan batute
 “Gure amentzat zeozer
 egin beharko genuke”.
 Naturalki atera zen
 ez gatz eta ez azukre
 ta “Asko maite zaitut ama”
 kantatu genuen geuk be.
 Harrezkero pasa dira
 gaurdaino ia bost urte
 eta oraindik kalean
 gogorazten digute.
 Hiru hitz dira oparitu
 daitezkeenak musu truke
 baina benetan esanda
 balio handia dute.

Nire buru ameslari
 ta nire nerabezaro
 esaten nuen “Ni ama
 gazte izateko prest nago”
 baina urteak uste baino
 lehenago dira igaro
 eta orain sentitzen naiz
 hori esaten arraro.
 Inguruan entzuten dut
 jada hamaika barbaro
 bikotea dut neuk baino
 urte mordo bat zaharrago
 gurasoek ere haur bat
 baino beste zer nahiago
 euren unea heldu da
 baina nirea urrun dago.

Emakume berdin ama
askorentzat erregela
den arren badakit hori
berrinterpreta daikela
eta badakit neu ere
ama izan naitekeela
alaba izan nezake
igual Bizkaiko txapela
edo zergatik ez igual
buruan dudan nobela?
Emakumeeri nola
betetzen zaien sabela
nik burua bete nahi dut
momentuz behintzat horrela
ta astebururo sentitu
erditzear nagoela.

A. M. Peñagarikano

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13v65s>

Gaia: *Sei argazkitan* programan atera zen Peña. Eta hara hemen beste argazki batzuk.

Pantailan Peñagarikanoren argazki hauek azaltzen dira:

Jaunartze egunekoa
Ehiztari moduan, uso batzuekin
Perretxiku biltzaile, onddo handiekin
Athleticzale bufanda batekin
Galdera ikur bat

(Jaunartzean)

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

Lehenengoa da komuniokoa
 horrek badu bere xarma.
 Apaiz gogorra genun herrian
 gogorra Don Jesus jauna
 Jaunartze Eguna da nik gogo handiz
 nik gogoan daukadana
 ordun hartu nun lehenengo ostia
 minik eman ez zidana. (bis)

(Ehiztari moduan, uso batzuekin)

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Edertasuna usoak
 badaukate koilarean
 bakar batzuk jausten dira
 Etxalarreko sarean
 ta ni berriz ibiltzen naiz
 beti Hernio aldean
 bakar batzuk botatze'itut
 hego-haize epelean.
 Adarra jotzen didate
 oso modu dotorean:
 nik ez nukeela joko
 San Inazio aldarean
 hori esaten duena
 ez bedi jarri parean. (bis)

(Perretxiku biltzaile, onddo handiekin)

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

Perretxikutan ibiltzen naiz ta
ez dauzkat kamara hutsak
maiatza aldean bilatzen ditut
xixa txuri edo susak
udazkenean Sebastianen
antza duten *Boletusak*
edo Mirenen tankera duten
Lactarius Deliciosak. (bis)

(Athleticzale, bufanda batekin)

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Athleticzalea naizela
aitortuko det hementxe
nahiz ta entzun “San Mames da
holakoen zoroetxe”.
Aspaldian ekipoak
ez du irabazten aise
beti galdu edo enpate
ni aspertu naiz oraintxe
beheko muturrean gaude
hola gaude *ai la letxe!*
Zertako dira Iturraspe
Moran, Rico ta Aketxe?
Hobeak baldin badira
Depor, Cordoba ta Eltxe. (bis)

(Galdera ikur bat)

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Adixkidia Andoaindikan*

Oraindik ere plaza batzuek
egiten ditut urtean
eta ikur bat jarria dago
horko argazkien tartean
zahartuta nago ta ez naiz beti
ni sentitzen aldarlean.
Zer egingo det? Kantatzen segi
deitzen duten bitartean.

S. Lizaso - A. Arzallus

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13v788>

Elkarri puntuak jartzen

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Maritxu nora zoaz I*

S. Lizaso

Amets futbolzalea
al zera oraindik?

A. Arzallus

Zer erantzun espero
dezu neregandik?
Aurtengo urtea horren
bitxia izanik
pixka bat urrutiratu
naiz Realangandik.

S. Lizaso

Gero Anoetara
joango al zera?

A. Arzallus

Gonbidatu nahi zaitut
agenda hartzera
gero kantura noa
ni Iparraldera
Anoetan baino hobeto
ibiliko gera.

S. Lizaso

Illarra zer baratzatan
erneko ote da?

A. Arzallus

Mutrikuko lurretan
omen zan atera.
Ordiziko preziorik
nik ez dakit zera!
Baina Madrilen egin
du garestitzera.

S. Lizaso

Neguan oso larri
dabil txindurria?

A. Arzallus

Jarri didazu nahiko
bide bihurria
animali kontutan
galtzen det neurria
beste nunbait zabaldu
zazu iturria.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

A. Arzallus

Zu futbolean ibiltzen
al zinan umetan?

S. Lizaso

Ez begira egoten nin-
tzan ni gehienetan
ta inoiz baloirikan
bazegoen bertan
kolpez botatzen nuen
paretaren bueltan.

S. Lizaso

Euriak ez du bustitzen
Eibarko polbora

A. Arzallus

nahiz primeran ez daraman
hainbeste denbora
azken hilabetetan
egin du mejora
ta ekainera arte ere
joan liteke gora.

A. Arzallus

Pelotari al zinen
azaldu eskua?

S. Lizaso

Neurria ikusi ta
badu arriskua
hartan ere postura
ez nuen preskua
kale egiten nuen
nik itxurazkua.

A. Arzallus

Atzapar galantak ta
haragia fina.

S. Lizaso

Ni naiz pertsona eskuak
zaintzen`e dakina
horrek emate al dizu
Ametz zuri mina?
Etzazu esan naizenik
lan gutxi egina.

A. Arzallus

Hobeto dauzkazu bai
patrikan sartuta! (*)

S. Lizaso

Kanpoan izatea
ez nago behartuta
kanpoko hotzarekin
baikaude ohituta
hola mantentzen ditut
beti berotuta.

A. Arzallus

Destinatuta zeunden
Arantzazurako.

S. Lizaso

Bai hala esan zuten
jaio ordurako
ez nintzaden joan ta
azaldu beharko:
izango zan konbentu
denan kalterako.

(*) Eskuak patriketan ditu Lizasok



Bertso-jaialdia

Tolosa, 2015-01-24

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

J. Maia – A. M. Peñagarikano

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13v8ak>

Gaia: (*Aurrez jendeari eskatutako gaietan irabazlea eta beraz hautatua, Haritz Mujika asteasuarrak proposatu eta Twitter bidez emandakoa*). Zu, Anjel Mari, saioa ikustera etorri zara. Hasieratik Jon, zure ondokoa, koaderno hartu, eta jakintsu plantak egiten ari da. Bertsoetako oin guztiak bertsolariet kantatu aurretik apuntatzen ditu, baina oraindik ez du bakarria ere asmatu.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

A.M. Peñagarikano

Kuadernorekin etorri da ta
hemen idazten jo ta su
pentsatzen nuen zu zeu zinela
maisu edota jakintsu
pentsamentua hala nuen nik
ta harritu egin nauzu
barkatu baina azkar usteko
tonto galanta zera zu. (bis)

J. Maia

Tonto galanta esan didazu
ze-nolako hitz trebeak!
Hara hitz egin du Leidorreko
bertsoaren erregeak.
Hemen Peña da hausten dituna
bertso guztien legeak.
Nik bere oinak asmatzen ditut
baina berak ez nereak.(bis)

A. M. Peñagarikano

Eta gainera oaindik jakintsu
jasan behar hainbat zigor
zuk okertuta zaudela hemen
esan behar det derrigor.
Kuadernotxoan zuk apuntatu
“Leidor, Igor, idor, motor”
ta bitartean errimak ziran
“koxkor, motor, jator, sator”. (bis)

J. Maia

Zu mozkortuta etorri zera
edo pixka bat makarra
“desio dudana bakarria” ez da
bate bukaera txarra.
Entzun dezagun orain Jon Maian
azken puntuko marmarra.
Begira nola esaten duen
“Desio dudana bakarria”. (bis)

A.M. Peñagarikano

Demostrazio ematea zan
honek zuen interesa
lehen ere esan det zu nola zeran
baldarra eta traketsa.
Jakintsu ustetan etorri arren
bertsozale aldrebesa
errimak nola izango dira
Jon Maia eta Juan Mesa? (bis)

J. Maia

Maialen nahiko lasai hasi da
Ametsek tonu xumea
ta Sebastian... bueno bastante
Miren oraindik umea.
Nahiz zu Jon Maian kontra aritu
dela txarra, dela mehea
oraindik ez da bate igerri
Egañaren hutsunea. (bis)

A. M. Peñagarikano

Honek nahi zuen jakinduria
gaur hemen konprobatzea
besteak baino gehiago dala
guztiei demostratzea.
Bi errima ere diferenteak
“jertsea” eta “etxea”
gaurko hizkuntzan deitzen diogu
auzo lotsa sentitzea. (bis)

J. Maia

Hemen zu zera tipo gorena
guztiz jakintsua edo
hemen zu zera bertsozalea
eta euskaltzale bero
hemen zu zera izar haundina
beste denak datoz gero
ba irteeran bota kutxara
hirurogeita hamar euro. (bis)

A. M. Peñagarikano

Ridikuloa zuk erakutsi
gaur hurbildu geran danoi
inolaz ere ez det izan nahi
nik holako baten morroi
hiru errima ikusi dizkat
“sasoi”, “armazoi” ta “doi-doi”
eta beste honek zer jarriko ta
“melo”, “kabroi” eta “Rajoi”. (bis)

J. Maia

Ez dakit heldu zezenai edo
ondotikan egin paso
ez dakit dena bertan apuntau
edo eta ez eraso.
Azken apunte bat ere egin det
benetan da grazioso
ipini baitet hor “Anoeta”
eta “Tolosako auzo”. (bis)

DONOSTIA (2015-01-31)

Bertsolariak: U. Iturriaga, U. Agirre, N. Ibarzabal, A. Martin, M. Lujanbio, a. Mendiluze, N. Elustondo, E. Lazkoz, O. Enbeita, S. Colina, A. Egaña eta A. Arzallus.

Gai-emaileak: Eñaut Agirre, Ainhoa Aranburu eta Josu Goikoetxea.

“Jolastu nahi?” izenburupean antolatu zuen Bertsozale Elkartek 2015eko Bertso Eguna. Berrogeita seigarrena. Bertsolariei jolaserako proposamenak eginez burutu zen egun osoko egitaraua.

Goizean, Donostiako kaleetan ibili ziren bertsolariak: Amaia Agirre, Iñaki Zelaia, Eneko Fernandez, Arrate Illaro, Xabi Igoa, Nahikari Gabilondo, Ander Elortegi, Unai Gaztelumendi eta Maddalen Arzallus. Bretxako merkatuaren kanpoaldean, Konstituzio plazan eta Ikatz kalean kantatu zuten.

Arratsaldeko jaialdian, berriz, Kursaalera Areto Nagusian hamabi bertsolarik kantatu zuten, eta afalondoan —Manteo kiroldegian izan zen afaria—bat-bateko saioa egin zuten Jone Uriak, Beñat Gaztelumendik, Sebastian Lizasok, Irati Andak eta Fredi Paiak. Ondoren, Oskar Estangaren eskutik jarraitu zuen festak.

M. Lujanbio

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13v9d0>

Gaia: Jolastu liteke? Ez!

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Gure aurreko guraso zaharrak*

Ikastolako jolastokiak
 behar gintun aberastu
 baina askotan justizirik ta
 legetik horrek eskas du.
 Baldin bazera neskato edo
 dohai fisikoz eskastu
 herren bazabiltz edo ez bazera
 lider txikiekin nahastu
 baloi jabeak maite ez duna
 ezin liteke jolastu.

Beraz jabea bakarra da ta
 berak nahi duen bezela
 antolatzen da jolastokia
 ta antolatzen da gela.
 Besteak dira bere meneko
 ta bera da erregela.
 Gizarte hontan gertatzen zaigu
 jolastokian bezela:
 zeinek esan zun umek helduak
 imitatzen dituztela?

Espazioa eta jokoa
 nahi degu geureganatu
 ta beste gisaz eta justiziz
 gure erara banatu.
 Baloi jabe den agintariak
 ez gaitzala gu manatu
 baloia ostu beharko zaio
 eta besteontzat hartu
 edo bestela baloirik gabe
 beste joku bat asmatu.

IRUN (2015-02-05)

*Bertsolariak: O. Barroso, B. Gaztelumendi, K. Aizpurua
eta I. Zelaia.*

Gai-emailea: Aitor Errazkin.

Kabigorri ostatuan hilero egiten dute bertso-saioa, Irunabarrek (Irungo Bertsoaren Bilgunea) antolatuta. Saioaren aurretik, Irungo txikien bertso-eskolakoek koplak kantatu zituzten.

B. Gaztelumendi – O. Barroso

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13vqfc>

Gaia: Ohean zaudete biak. Ez dakizue nola esango diozuen...

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Hamalau heriotzena I*

B. Gaztelumendi

Biok degu azala
izerditan garden
nola gaur gau osoa
gerra bat izan den
biok elkarren kontra
hainbeste hasperen
zeinen gertu ta zeinen
hurbil gauden hemen
ta nola esango dizut
ze urruti zauden?

O. Barroso

Begira denbora bat
pasa da jadanik
denboran aldaketa
dextente eginik
ez nun uste holakorik
entzunen nuenik
baina nik erantzuna
zuretzat badakit:
pixka bat urruntzeko
esan nahi nizun nik.

B. Gaztelumendi

Urrundu behar degu
nere aldetik ongi
nahiz dena den izerdi
tanta gazi, lodi
hau pasa zaio beste
bikote askori
azalaren hizkuntzan
ohi zaigu erori
hitzen bidez esaten
ahaztu zaigun hori.

O. Barroso

Konpondu nahia baina
konpontzea nekez
biharko amesgaiztoak
lehengoak betez.
Diozu ez gara mintzo
hitzaren bitartez
zeren azken aldian
zeurez eta nirez
bakarrik mintzo gira
sexuaren bidez.

B. Gaztelumendi

Gure izarek dute
sexuaren forma
baina gure tartean
ze-nolako horma!
Konpartitu genuen
gure zoriona
amets bat ta etxe bat
dena da biona
ez det ulertzen nola
heldu garen hona.

O. Barroso

Urtetan zehar joan da
muxuen erresta
ez baikira alperrik
bi mutil, ez neska.
Horrez gain izan dugu
jada aski kezka
ta gauzak doazenean
hain oker, trabeska
galderak daude baina
ulertzerik ez da.

B. Gaztelumendi

Nahiz ta elkartu ginen
bion borondatez
sentitzen det lotuta
nagoela katez.
Nahiz erantzun errexik
ez dagon izatez
mahaian eserita
kafe bero batez
hitz egingo al degu
aspaldiko partez?

O. Barroso

Bai hitz eginen dugu
ados egiazki
ta edan ditzakegu
guk kafeak zazpi.
Badaukagu etxea
ta hori`re gaizki
badaukagu kotxea
guztia zehazki
dena dugu soberan
ta inoiz ez aski.

LEZO (2015-02-07)

Bertsolariak: B. Gaztelumendi, On. Enbeita, J. Maia eta A. Egaña.

Gai-emaileak: Amaia Resende eta Julen Mogollon.

Lezoko Mañontzi Bertso Eskolak eta Lezoko Gazte Asanbladak Udalaren laguntzarekin antolatzen duten saioa da. Azken urteotan Gezala aretoan egiten da, eta bertso-giro goxoa sortu ohi da, lekua ere halakoxea da eta.

B. Gaztelumendi – On. Enbeita

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13vbho>

Gaia: Bikotea zarete. Onintzaren urteak dira gaur eta ahaztu egin zaizu Beñat. Azken momentuan 50 xentimoko pultsera erosi diozu.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijoa*

B. Gaztelumendi

Goizetik sentitu det
nik kandela hotsa
eta nahiz ta kalean
egiten zun hotza
nere laztana, nere
bizitza ta poza
tori pultseratxo hau
ta nere bihotza. (bis)

On. Enbeita

Esplikazino hutsez
gaur horrenbeste hitz
hainbeste aitzakian
hain ondo ez gabiltz
pultsera tristetxo bat
kolore gabe hits...
Gaitz erdi gutxienez
tailakoa balitz! (bis)

B. Gaztelumendi

Beraz haserre xamar
zaude orain klaro!
Nahiz dirutan ez naizen
ibiltzen oparo
nahiz ezustean ohi den
denbora igaro
gelditu egiten da
zurekin banago. (bis)

On. Enbeita

Metafora *kutrea*
eta ze ustela!
Egunero berdina
zozoa, epela!
Ta azkenean Beñat
urtero bezela
*Facebook*ak esan dizu
nire eguna dela. (bis)

B. Gaztelumendi

Bai, detailea izan da
hortxe agertzea
baina ez det ulertzen
daukazun letxea
zorionez gainezka
daukagu etxea
egunero da gure
urtebetetzea. (bis)

On. Enbeita

Mundua ez da berdina
goizero-goizero
ta nik zerbait nahi nuen
berezia edo
egunero urteak
ze *guai* ta ze bero!
Mariskoak be aspertu
leike egunero. (bis)

B. Gaztelumendi

Beraz ez nabil ondo
hala jardutean
ikusten nauzu nahiko
itxura kutrean.
Ospatu nahi badezu
marisko trukean
zerbait egingo degu
datorren urtean. (bis)

On. Enbeita

Egongo bazinake
Beñat niri adi
aurkituko zenuke
zeozer opari.
Hala lotara noa
agur egunari
ta jarri pultsera hau
zure bihotzari. (bis)

J. Maia - B. Gaztelumendi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13vck4>

Gaia: Jon, alkatea eta Beñat, alkatearen semea. Gazteek sinadura-bilketa egin dute lokal eske eta Jon alkatea harrituta dago, bere semearen sinadura zerrendan dagoelako.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

J. Maia

Zure izena gutun horretan
ikusita alafede!
Susto galanta eman didazu
ta ez dit egin mesede.
Kriston lokala nahi omen dezu
ia kasinoen pare
ta bitartean zure logela
oherikan egin gabe. (bis)

B. Gaztelumendi

Nik uste nuen bentaja zela
aita izatea alkate
baina tamalez ikusten ditut
mesede adina kalte.
Zuk gaztetxe bat juxtu guretzat
Lezon jarri zenezake
zuri mesede egitearren
bertan biziko nintzake. (bis)

J. Maia

Nere semea itxura baten
jaio zena kriston bala
beti kalean, beti protestan
gazte on bat, naturala.
Ta gaztetxe bat subertsiboa
eta ez artifiziala
baina astero eskatzen dezu
subentzio pertsonala. (bis)

B. Gaztelumendi

Ai nere aita hemen gezurrak
azkar hasten da esaten
ikasten eta lanikan gabe
zer egin ote nezakeen?
Zure soldata nere patrikan
zati bat det eramaten
udaletxetik ez didazu ta
apurrik ere ematen. (bis)

J. Maia

Nere apurra ematen dizut
gure etxean jatean
baina hala're beti kolpeka
udaletxeko atean.
Beñat bizitzan dena ez dator
zerutik ta bat-batean
zure txokoa izango dezu
pentsionista izatean. (bis)

B. Gaztelumendi

Ta ikusita krisiak hartu
dituen bide ilunak
gazteak izan ote gaitezke
sekula pentsiodunak?
Nahiz ta zu mindu nik emandako
firma baten oihartzunak
okerragoak izango dira
zuk firmatzen dituzunak. (bis)

J. Maia

Ausartu nintzan eskatu eta
 zerrenda batean sartzen
 ordutik nago alkate gisa
 herri xahar hau sukaldatzen.
 Hor onak gera, ta asko gera
 oztopotatik pasatzen
 ta bitartean nere etxian
 minorian gobernatzen. (bis)

B. Gaztelumendi

Ate horretan bukatzen baita
 alkate jaunaren nota
 zuk badakizu soilik dauzkazu
 hemen bi aukera mota:
 guri gaztetxe bat ematea
 onartuz gure erronka
 edo eliza okupatzea
 aspaldi hutsik dago ta! (bis)



*Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa
 Orio, 2015-06-27
 Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)*

ANDOAIN (2015-02-22)

*Bertsolariak: A. Mendiluze, A. Martin, B. Gaztelumendi,
A. Agirre, J. M. Irazu eta U. Muñoa.*

Gai-emailea: Ion Beloki.

Sahararen aldeko saioa egiten dute urtero, igande eguerdiz,
Bastero Kulturgunean. Aretoa bete egiten da, eta giro ona
sortzen da Hurria Sahara taldeak antolatutako jaialdian.

J. M. Irazu – A. Mendiluze

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13vdmg>

Gaia: Duela gutxi omenaldia egin diote Mendiluzeri Andoainen, eta
Irazu inbidiatan dagoenez, Larraulen ez baitiote horrelakorik
egin, zein pausu eman behar diren galdezka hasi zaio.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

J.M. Irazu

Omenaldi bat egin zizuten
detaile finez betea
hementxe bertan jende pila bat
hemen bertan alkatea
bertso eskolako umeak eta
entzule bero, tentea.
Lehendabiziko baldintza al da
norbere herritik joatea? (bis)

A.Mendiluze

Bai, ez ziguten egingo noski
bertan geratu bagina
baina joan eta handik gutxira
nolako maitasun fina!
Dagoen hura ez baita maite
falta den hura adina
etxean hala gertatzen zaigu
eta herrian berdina. (bis)

J.M. Irazu

Baina ez dago hoi konpontzerik
zertako hasi ezbaian?

Ta nunbaitetik hasiko ziran
omenaldian usaian.

Hoita hemezortzi urte bakarrik
eta omenduen gaian
eskultura bat eingo dizute
zahartzen zeran garaian. (bis)

A.Mendiluze

Ez dakit ba nik esan dezuna
pentsa ezazu hobeto
hoita hemezortzi urtez omendu
egindakoak tarteko
agian horrek esan nahiko du
bide berean joateko
edo nahikoa egin dedala
ta lata ez emateko. (bis)

J.M. Irazu

Disimulatzen ez zaitez hasi
ez zizun sortu izua
omenaldia merezi zendun
nunbait bertsotan maisua.
Larraulen ere andoaindarrek
haundia dute pisua.
Ai Mendiluze zeharka-zeharka
pasaiezu abixua. (bis)

A.Mendiluze

Andoaindarrek egin ninduten
omenaldi horren parte
Irurakoak beste hainbeste
egindakoak bitarte
ta larrauldarrei abisatzeko
ez ote da zeure kalte?
Abixua nik pasa ezker
neri egingo didate. (bis)

J.M. Irazu

Aitor hori`re ez nuke ba nahi
nahikoa dezu ta bale!
Alde batera zertan ibili
omenaldien eskale?
Zeure herrian lehenbiziko ta
ondoren Iruran dale!
Ez da ba izango koipe gehiegi
ematen dezun seinale? (bis)

A.Mendiluze

Inbidia orain agertu zaizu
ai Jexux Mari maitea!
Zerbaitegatik egingo zuten
zer nahi dezu esatea?
Baina zuk segi zoazen gisan
mantendu borondatea
askoz hobe da nahiz ta ez omendu
merezia izatea. (bis)

A. Martin – B. Gaztelumendi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13veos>

Gaia: Saharari laguntzeko janari-karabanak antolatzen aritu zarete biok. Bukatu duzue, bidali dituzue, eta Alaia oso gustura dago. Beñatek, ordea, ez du oso argi hori ote den elkartasuna adierazteko biderik egokiena.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Beti penetan beti penetan*

A. Martin

Jaiotzerako ipintzen zaie
batzuei bizi-kondena
ipintzen zaie hurrenkerarik
hautatu gabe ordena.
Esaten duzu ez litekeela
hola konpondu problema.
Bide bakarra dagoenean
bide hori da onena.

B. Gaztelumendi

Bide horretan elikagaiak
berez badute kabida
baina Maroko bortizkeria
areagotzen ari da.
Kamioietan sartu ditugun
elikagaien distira
zabaltzen doan zauri batentzat
partxeak baino ez dira.

A. Martin

Helburua da jendarteari
min hori erakustea
isolatzeko estrategia
desmontatuz zapuztea.
Nik onartzen dut partxe bezela
igual Beñat ikustea
baina ez dugu bide hobea
bidean odolustea.

B. Gaztelumendi

Eta Marokok ondo zehaztu
ditu hortarako mugak
beraiaentzako dira hareak
Espainarentzako urak.
Elikagaiak bidali arren
nik badauzkat nere dudak:
elkartasuna maiz ez ote den
menderakuntza modu bat.

A. Martin

Menderakuntza era bat bada
baina bidean biltzeko
balioko du Maroko behingoz
aritu arte hitzeko.
Nahiz karabanan lekurik ez den
gero oso bat kabitzeko
behintzat balio izan litzake
bakarrik ez sentitzeko.

B. Gaztelumendi

Isolatzetik ateratzen da
karabanekin kolpera
baina han ezer ez dute eta
gu hemen gaude topera.
Benetan ez da ta konponduko
Sahararen egoera
aileagatzen ez geran artean
parez pare egotera.

GASTEIZ (2015-02-26)

*Bertsolariak: M. Agirre, M. Amuriza, I. Anda,
A. Arzallus, J. Maia eta J. Uria.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

“Gora Gasteiz” herri ekimenak antolatu zuen jaialdia Jesus Ibañez antzokian. Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaz eta etorkinez egindako adierazpen polemikoen ostean sortu zen “Gora Gasteiz” inizatiba. Eskubide eta aukera berdintasuna aldarrikatzeko asmoz egin zuten bertso saioa ere. Horren inguruko bertsoaldi dexente ageri ziren Josu Goikoetxeak jarritako gaietan eta bertsolarien jardunean.

*M. Agirre - M. Amuriza - I. Anda - A. Arzallus
J. Maia - J. Uria*

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13yfr8>

Gaia: Gasteizen bezala, “Ayudas más justas” elkarteak beste hainbat tokitara ere hedatu dira, eta bistan da beste eskakizun batzuk ere badituztela. Zuen ustez zer da laguntza bidezkoago bat?

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haize hegoak hurbiltzen ditu*

A. Arzallus

Delikatuak diren gaietaz
ari beharra kantari
bertsolari bat maiz izaten da
reflexioen atari.

Adibide bat jarriko dut nik
eman horri edo hari
bidezkoa beti egin zait
gutxiena daukanari.

J. Maia

Koloreetan bereizten dute
garia eta lastoa
abizenekin bereizten dute
zintzoa eta gaiztoa
batzuk haseran dena baietza
besteeri ezezkoa
denen aukera berdintasuna
horixe da bidezkoa.

J. Uria

Laguntza batek ezin du islatu
pertsona baten justoa
bide hortatik segi ezkerro
kontua ondo ez doa.
Nire erantzuna sinplea dugu
ia-ia berezkoa:
laguntzak beti ez ote luke
izan behar bidezkoa?

M. Amuriza

Publiko dena bihurtzen bada
pribatuaren jabego
desorekatuz doa balantza
egunero-egunero.
Behar gorrian bada norbait ta
laguntza badu espero
bidezkoa da ez ukatzea
eman ahal izan ezkerro.

I. Anda

Beharrak dira haundiak eta
desoreka da eroa
ziurgabea ezin da izan
pertsona baten geroa.
Gose denean janaria ta
hotza denean beroa
laguntza baino ez al da hobe
bizitza bat bidezkoa?

M. Agirre

Errepikatzen ez naiz hasiko
ez da egokia, ona.
Gehituko nuke helburu izan
behar lukeela pertsona
laguntza juxtuago bat zer den
nire azalpena hona:
ba juxtu-juxtu dabilenari
arnasa ematen diona.

A. Arzallus

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13vgtk>

Gaia: Ahmed Baraudi izeneko etorkin marokoarrak idatzi du gutun bat prentsan aste honetan. Xenofobiaz kexu da. Oinarrian dio hezkuntza dela guzti honetatik aterako gaituena. Esaera arabiar batekin amaitzen du gutuna: “Ez hitz egin gaizki iluntasunaz, piztu ezazu argi bat”.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Gure aurreko guraso zaharrak*

Azal ilunak gara gehienak
agian ilunegiak
argizarizko zuritasun bat
badu zure aurpegiak.
Nahiz ta zu zaren hemen nagusi
zu ta lagun beste biak
nola ezagutu ahal dituzu
iluntasunen egiak?
Gauetz iluna jeisten denean
ixten dituzu begiak.

Gerra garaian itxaropen bat
piztu liteke luzaro
ezintasunak irudimena
besteek baino lehenago
goseak zenbat ideia bitxi
ni neu sinistuta nago.
Poeta bati aditu nion
ta ahaztuz gero akabo:
ilunak beti argitu izan du
argiak baino gehiago.

Beraz etzazu ezagutzeke
aipatu gure bizitza
ignorantziak duen hitz hori
hain da triste ta murrizta..
Zatoz gugana azken finean
biak ondoan gabiltza
ta ba al dakizu guk nola piztu
genezakeen argi printza?
Sarri aski da begirada bat
ta are gehiago hitza.

A. Arzallus - J. Maia

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13vi>

Gaia: Bi lagun zarete. Gasteizko kaleetan paseoa zoazte. Begiak berehala joan zaizkizue erakusleio baten erdi-erdian dagoen pegatina batera. Esbastika bat duen pegatina koloretsua dago bertan: “No falta trabajo, sobran inmigrantes” jartzen du.

Nik aldatzeko izaten ditut
makina bat inkognita
ta hoiien bidez kanbiatzea
izanagatik taktika
zailagoa da kanbiatzea
entzuleriaren txipa. (bis)

I. Zubeldia – M. Lujanbio

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/1413d8>

Gaia: Maialen, zentro komertzialera joan zara erosketak egitera. Bete duzu gurdia eta kaxara iritsi zara. Han, Iker kajeroa dago. Kobratu ahala erositakoaz komentario eta galderak egiten ari zaizu.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Zeru altuan zegoen Jaunak*

M. Lujanbio

Barra kodea pasatu ahala
honek ahoa zabaldu
batak gizendu egingo naula
besteak berriz argaldu
beste hau sarri saltzen duela
hurrena ezin dula saldu...
Zure lata hau aguantatzeak
deskuentoik egiten al du?

I. Zubeldia

Beti izan det bezerokiko
hoinbesteko interesa
integraletik tire egiten du
a ze nolako sorpresa!
Pastelak ere hiru dozena
hortan ez dauka pereza.
Zure dieta ulertzen ere
ez dago oso erreza.

M. Lujanbio

Nere dieta nere dieta da
uztazu aparkatuta
hasi bazara dena kobratzen
hasi zaite eta buka!
Asper-asper egina hortxe dago
mingaina bizia du ta
testu iruzkinak egiten ditu
ingredienteak letuta.

I. Zubeldia

Pazientzia haundi samarra
behar da bezero honekin
deskuentoak eskatzen ditu
nola ibiltzen dan zeinek jakin
tres por dos eta bere kupoiak
ezin du hortik aldegin
ia amona eginda zaude
hogeita hamar urterekin.

M. Lujanbio

Amona ez baina nik ere behar det
edateko ta jateko
ta zu danari punta ateratzen
ze poeta bapateko!
Orain nik daukat berrehun euroko
ta besteik ez emateko
ta preparatu horrerri ere
izango du esateko.

I. Zubeldia

Berrehun eurora zure faktura
nahikoa azkar da io
kupoiak ere atera ditu
bere poltsa barrutio
kontua ere preparatu det
beraz agur ta adio.
Gazte Txartela gorde ezazu
ia ez dizu balio.

M. Lujanbio

Gazte Txartela alperrik daukat
baina hementxe aukeran
kupoiak eta *travela* ere
eman dizkizut haseran.
Gabonetako zozketako ere
nola zera sartu dedan
tokatzen bada biajea zutzat
ta ia joaten zeran!

I. Zubeldia

Haserre samar ipini zera
baina posible ote da?
Adiskidetu egin gintezke
badaukagu ta aukera
ta biaje bat tokatu leike
hemen Karibe aldera
bakarrik triste eongo nintzake
batera joango al gera?

MARKINA-XEMEIN (2015-12-08)

*Bertsolariak: A. Egaña, F. Paia, M. Lujanbio, A. Arzallus,
U. Alberdi eta J. Soto.*

Gai-emailea: Xabi Paya.

Amaiur Elkarteak antolatzen du urtero, abenduaren 8an, Kontzesioko bertso jaialdia. Markinako pilotalekua jendez beteta, aurtengoan Xabi Payak jarri zituen gaiak. Bi ordutik gorako saioa izan zen; oso bete, ona eta beroa.

A. Egaña - U. Alberdi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/1414fk>

Gaia: Autobus batean egin duzue topo. Uxue haurdun, zazpi hilabete eta erdikoa, oro min eta goragale. Andoni, laurogei urteko agurea, oro min eta oro marmar. Autobusean eserleku bakarra geratzen da libre.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

A. Egaña

Biok hemen gabiltza
aulki baten jiran
zuk zazpi hilabete
haurrakin segiran
ta zuk zeuk eseri nahi
kontuak zer diran...
Lehengo neska gazteak
fuerteaguak ziran. (bis)

U. Alberdi

Ta lehengo agureek
zenbat behar konta
autobus baten gaude
biok ere jota
aulki bakarran jiran
hasi da borroka.
Barkatu baina gara
bi bakarran kontra. (bis)

A. Egaña

Holakoak entzunak
ditut nik aspaldi
neri toki uzteko
zabiltza hain nagi.
Bi, bat, matematikan
ibil zaitez argi!:
zuk lau belaun dituzu
nik sei belaunaldi. (bis)

U. Alberdi

Sei belaunaldi dauzka
ta badauka minik
hor dago ia zutik
mantendu ezinik.
Orain lasaituago
naiz hori jakinik
zortzi bazeneuzkala
pentsatzen nuan nik. (bis)

A. Egaña

Gaurko gazte jendeak
legeak gordeta
ezin ni erreskata
ezin errespeta.
Aitonantzat tokia
uztazu puñeta!
Igual azken bidaia
izango da eta! (bis)

U. Alberdi

Berrogei urte arte
hona eta hara
gurasoen etxean
hala bizi gara
jubilatzen gera ta
hartzen da patxada
hirurogei urtekin
gaztetxo bat zara. (bis)

A. Egaña

Geratu naiz ez arnas
ez berba ez irri
bihotzekoak eman
nago larri-larri
funerarian bila
egin zazu korri.
Agur ta umeari
Pankraxio jarri. (bis)

U. Alberdi

Bihotzeko faltsuaz
ze okasioa!
Patxadan esertzea
bere desioa.
Gauza relatiboa
da edukazioa.
Itxaron iritsi zait
lehen kontrakzioa. (bis)

F. Paia

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/1415i0>

Gaia: Markinan egon zen fabrika handi bat *Esperanza y Compañía* izenekoa. Armak eta leherkariak egiten zituen eta ehunka familiak hortik lortzen zuten bizimodua.
1994an gaude eta zu *Esperanza y Compañía*ko burua zara. Hainbat jende kontra duzu, entzun duelako fabrika ixtera zoazela.

Neurria: Hamabiko handia

Doinua: *Oso polita zara izatez*

Arma fabrika ez ete dogu
horren ogibide latza?
Zuriak egin gero alkar hil
musulmana edo baltza.
Alde batean dirua dago
beste aldean triskantza
ez da erreza orekatzea
balantze horren balantza
almohadarekin kontsultatu ta
ere urtenbide gatxa
konpainia itxi behar baldin badot
piztu daiten esperantza. (bis)

Mila mesede egin deusoguz
Markinako herriari
soldata eta kontratu ona
Markinako semeari.
Baina munduan zabaldu dogu
arma lazgarri ugari
diktadore ta bihotzik bako
agintarien opari
ta hirugarren mundua urrun
dago ez al da nabari?
Ta bost axola langabezian
behar barik dauenari. (bis)

Beraz hautatu beharra dekot
bihotza ala sakela
gure herrian langabezia
asko haunditu leikela
baina Afrikan errubakoak
hil ingo dira bestela.
Fakturazino oparo honek
hain deko usain ustela
ta jakin bedi gaur kontzientziak
gerra irabazi dauela
ta ahal baldin bada gaurtik aurrera
horrela izan daitela. (bis)



*Bertsoa unibertsitatean (EHU – Mintzola)
Donostia, 2015-07-09
Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)*

M. Lujanbio - U. Alberdi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/1416kc>

Gaia: Maialen, zu, herriko *boutique* ederrenaren jabea zara. Astero, Uxue etortzen da dendara, soineko polit bat erosten du eta hurrengo astean bueltatu egiten du. Seigarren aldia da.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orioko balearena*

M. Lujanbio

Berriz hemen al zera?
Ez zabiltz serio
zure arropa nahia
ai ze delirio!
Eramaten dezu ta
buelatu propio
manikiari ere
gehio irauten dio. (bis)

U. Alberdi

Zuretzat ze ona naizen
ondo bazeneki.
Kalean paseatu
ohi ditut emeki
marketina egiten
dizut nik ederki
hemen erosia dela
esaten dut beti. (bis)

U. Alberdi

Astero etortzen naiz
ni zure txokora
bat eramaten dut ta
egiten dut froga
aste batean marra
ta bestean lora
oso azkar kadukatzen
da gaur egun moda. (bis)

M. Lujanbio

Hemen erosia ta
ez prezio merkean
estapanatua dago
oain moda betean.
Tori lora haundi hauek
kolore fuertean
ezin dira bueltatu
ximeldu artean. (bis)

M. Lujanbio

Marrak modan jarri ta
zuk marrei mespretxu
pixka bat insegura
ez ote zaude zu?
Beti *boutiquera* ta
hemen beti kexu
psikologoarengana
joan hobe dezu. (bis)

U. Alberdi

Beraz hauek maiz xamar
urezta beharko
eramango dut ezin
buelatu biharko.
Hirurogei euro da
ordu baterako
bueltaidazu dirua
psikologotako. (bis)

M. Lujanbio

Lehenbizi “XS”kin
hasi zena bera
gero “S”ra pasa
ta gero “M”ra
ondore “L” eta
“XL” ote da?
Ta erditzen denean
berriro hastera. (bis)

U. Alberdi

Haurdunaldia daukat
guztiz oparoa
ta tailaz aldatzea
ez da arraroa.
Zu lasai laster baten
erditzera noa
postpartoa izango dut
estableagoa. (bis)

A. Egaña - J. Soto

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/1417mo>

Gaia: Andoni, zuk Juliorengana jo duzu kexaka. Julio zure semearen maisua da, eta haurrari jartzen dizkion etxeko lanak zailegiak direla eta, kexatu zara.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijo*

A. Egaña

Bateko fisika ta
besteko matea
gero kimikarekin
ze errematea!
Seme dut ze nahi dezu
Julio esatea?
Inork ez deu espero
Einstein izatea. (bis)

A. Egaña

Baina umearekin
a ze sesioa!
Den-dena ulertzea
bere desioa.
Whiskiai ura bota
nere bizioa
hori da nik dakidan
disoluzioa. (bis)

J. Soto

Ez hortikan ez zaizu
irtengo Einsteinikan
disoluzio batzuk
ahal dela kimikan.
Aita baldin badago
ulertu ezinikan
horrek ez du esan nahi
zailak direnik. (bis)

J. Soto

Beste formula bat nahi
nion erakutsi
ura da H₂O
ta hari igurtzi.
Baina iruditzen zait
ta hobe argi utzi
etxe hortan dagola
oxigeno gutxi. (bis)

A. Egaña

Ba maisua zu ere
hasia pilatzen
gehiegi ez al zera
zeu korapilatzen?
Sinplea erakutsi
lehen hala eiten zen.
Zein hasten da urari
“H” ta “O” bilatzen? (bis)

J. Soto

Bilatze ez duenak
gero aurkitu ezin
zutaz aditzera dut
ta ez dena atsegin
erretzen duzu zenbait
puru gizen zein fin
zuk jarraitu karbono
dioxidoakin! (bis)

A. Egaña

Semea etxeko lan
gehiegin jabea
bizitza gozatzeko
denboraik gabea.
“Zu erretzaile zera”
esku bat grabea
zu zer zaitugu maisu
edo abadea? (bis)

J. Soto

Lehengoan erakutsi
nahia nion nik Platon
baina bere aitari
hainbeste jaramon
zure ondoan badago
baina lasai egon
igual ikasiko du
nor zen Tutankamon. (bis)

A. Egaña

Uste al dezu jaio
naizela ni aurtent?
Tutan-Gabon horrekin
ez zaite zu irten.
Saiatua itzala
zer degun esaten
ni ere ez naiz bizi
leizazulo baten. (bis)

J. Soto

Kritikatu dituzu
nire lege, arau
gaurko etxeko lana
bidali dut ri-rau
nahiko errexa dirudi
ta horrek lasaitzen nau.
Baina erne: bi ta bi
beti ez dira lau. (bis)

DONOSTIA (2015-12-19)

*Bertsolariak: U. Agirre, I. Apalategi, B. Gaztelumendi,
O. Iguaran, A. Laburu, J. Maia, A. Martin
eta A. Oiartzabal "Xamoa".*

Gai-emaileak: Saroi Jauregi eta Ion Zaldua.

B. Gaztelumendi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/1418p4>

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako txapeldunaren bukaerako agurra.

Neurria: Hamaseiko handia

Doinua: *Eguzkiak urtzen du han goian B*

Milesker Iker Alustizari
Esoain ta Sukiari
Eizagirretar bixkiei eta
Hernaniko kuadrillari
ume beldurti hau jartzearren
erratz batetik kantari
zuek bezela bertso eskoletan
ari da jende ugari
konpromisoa eta jolasa
hitzak direnez gauza bi
bertso eskolaz bertso eskola
belaunaldiz belaunaldi
hau zuentzat da zeratelako
ahots bat ematen ari
isilik egon behar zuela
esaten ziotenari.

ORDIZIA (2015-12-26)

*Bertsolariak: A. Martin, J. Maia, I. Apalategi,
A. Oiartzabal “Xamoa”, O. Iguaran, B. Gaztelumendi,
A. Laburu eta N. Elustondo.*

Gai-emaileak: Inaxio Usarralde eta Saroi Jauregi.

Goierriko Bertso Eskolak, Ordiziako Udalaren laguntzarekin, Gipuzkoako txapelketako zortzi finalistekin antolatu nahi izan zuen urte askotan garaitsu horretan egiten den jaialdia. Unai Agirrek ezin izan zuen gerturatu eta haren ordezt Nerea Elustondok kantatu zuen.

N. Elustondo – O. Iguaran – A. Martin
<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/1419rg>

Gaia: Aurtengo Gipuzkoako Txapelketan Inaxi Etxabek jarri zion txapela Beñati. Haren gazte garaian, emakumezko bertsolariek ez zuten tokirik oholztan. Gaur lau gaude oholztan, hiru ari zarete kantuan eta bat gai jartzen.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Espainian behera*

A. Martin

Ohore bat izan zen
gu guztiontzako
begitatiek suizida
iheska bost malko
berak oholztan ikusiz
han hiru neskato
lehen ez zegoen baina
badago biharko
lehen ere bazegoen
baina oholztaz kanpo. (bis)

O. Iguaran

Ze momentu aitzean
Inaxin bihotza
kantuz zapaltzen eta
betetzen oholztan.
Neri`re begitatiek
jarioan poza
baino oholztan nahi degu
denak ta bakoitza
ezin degu imitatu
Inaxin ahotsa. (bis)

N. Elustondo

Guk Inaxik bezela
nahi genuke kanta
bainan garai berritan
sartuak gera ta
bide berria egin
behar harrapaka
lehen ez zirela izan
gezurak lagata
izan baziren baina
nork entzuna falta. (bis)

A. Martin

Nahiz izan aski gogo
ta aski gaitasun
nahikoa norabide
ta nahiko nortasun
baserriko hormatan
bakarrik oihartzun
sorgin gurpilak zuen
berez nahiko zentzun
emakumek esan ta
emakumek entzun. (bis)

O. Iguaran

Behin Egañak esana
nik gogora alai
lehen gaitzat hartzen ziren
baino baziren gai
nahiz ta isiltzeko esan
hortan hainbat garai
“Plaza artean nahi det”
nago entzuteko zai
ze nik kantatu nahi det
baino entzun ere bai. (bis)

N. Elustondo

“Lehenago gai zirenak
orain beraiek gai”
nahiz ta esaldi hori
geratu oso *guai*
ez da guztiz egia
ta ez gaude lasai
hemen gizon gehiago
baitaude nolanahi
eta tamalez zuen
arteana ere bai. (bis)

A. Martin

Parekidetasuna
lehenengo helburu
mundua ez da eta
denontzako mundu.
Berdinduz joan dadin
segunduz segundu
orekatuz joan dadin
kopuruz kopuru...
Usarralde oholtzatik
jeitsiko al dugu? (bis)

O. Iguaran

Dena ekarri nahi dugu
pareko neurrira
baino sexua zer da?
Galdera hori da.
Bereizkeria igual
alperrik da tira!
Nik ez det nahi oholtzatik
inoiz erretira
ta behar dudana oro
belarriak dira. (bis)

N. Elustondo

Nahiz ta hemen ez degun
pintatu itzela
badakigu mundua
kanbiatzen dela
ta aurrerapauso batzuk
ere eman direla
baina apar artean
lokartu ordez bela
ez ahaztu egiteko
asko dagoela. (bis)



*Diasporako eta Euskal Herriko bertsolarien saioa
Villabona, 2015-10-14
Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)*

ARAMAIO (2015-12-26)

*Bertsolariak: J. M. Irazu, M. Agirre, I. Viñaspre
eta A. Egaña.*

Gai-emailea: Marta Ugarte.

Gabonetako jaialdia, Aramaixoko Bertso Eskolak antolatuta,
Aramaio kultur etxean.

J. M. Irazu

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/141ats>

Gaia: Gaur institutu garaiko ikaskideekin afaria izan duzu. Etxera
bueltan zoaz, bakarrik eta irrifartsu.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Hil da Canovas fuera Canovas III*

Institutoko afaia eta
bildu gera ia denak
Karlos ta Mikel, Maite ta Miren
hoitako batzun izenak.
Batzuek parre eiten zidaten
haiek nigana kemenak!
Orain parre neuk egiten diet
libratu hola barrenak:
ni baino jornal kaxkarragoa
gelako enpolloienak.

Ta denetikan tokatu omen
ze ofizio andana!
Bata mediku sartu omen zan
denak sendatzeko plana
bestea berriz ETBn dabil
kazetaritzan afana
ta hurrengo ertzaina sartu
kuadrillan badauka fama.
Aramaiotik etxerakoan
multa ipini zidana.

Hogei bat urte egin ditugu
guztiok ere atzera
mundua asko aldatu da ta
asko aldatu da norbera.
Goizeko seiak jo digute ta
kotxean noa etxera
neure baitako kontu ta marmar
ondorioak atera.
Garai batean gela bat ginen
ta orain mundu bat gera.

DURANGO (2015-12-30)

*Bertsolariak: A. Arzallus, On. Enbeita, B. Gaztelumendi
eta M. Lujanbio.*

Gai-emailea: Unai Iturriaga.

“Urteko azken bertso saioa”. Izen hori hartzen du urtearen
hondarrean Durangoko Plateruena Kafe Antzokian antolatzen
den saioak. Berbaro eta Durangoko Bertso Eskola dira
antolatzaile eta jendetza handia biltzen da.

On. Enbeita - B. Gaztelumendi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/141c08>

Gaia: Beñat psikologoa da eta psikologoarengana joan da Onintza. Zer
duen galdetu dio, eta Onintzak esan dio “*Goenkale* amaitu da”.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijoa*

On. Enbeita

Aspaldian bizitzan
dana daukat krisi
gertatzen dana ezin dot
albo baten itxi.
Goenkale joan da
ta manifa gutxi
ta Onintzak ezin dau
holan ondo bizi. (bis)

B. Gaztelumendi

Nahiz ta ez zen munduko
programa onena
orain bukatu da ta
ai zenbat problema!
Badakizu ETBk
egiten duena:
gauero botako du
errepikapena. (bis)

On. Enbeita

Baina errepikatu
 arren atal danak
 beste ardura batek
 emoten dauz lanak:
 nora joango dira
 han egon diranak?
 Kadukatuko dira
Bogako kruasanak. (bis)

B. Gaztelumendi

Beraz horiek kezkek
 sortzen dizkizute
 kadukatuko dira
 uztearen truke.
 Lasaiago aztertu
 beharko zenuke
 kadukatu zirala
 jada hogeit urte. (bis)

On. Enbeita

Barkatu baina holan
 ez nauzu laguntzen
 ta hasi niretzako
 zeozer bilatzen
 ja onezkero ez det
 nik imajinatzen
 Iñaki Perurena
 harriak altxatzen. (bis)

B. Gaztelumendi

Harritatik atera
 behar du soldata
 nahiz *Goenkalerako*
 ipini korbata
 Perurenak oraindik
 emango du lata
 anuntzio danetan
 ateratzen da ta! (bis)

On. Enbeita

Baina anuntzioak
 kontuak atera
 inor ez da joaten
 horrek ikustera
 ta astelehen gabetik
 hurrengo atera
 nik zer egin behar dot
 hemendik aurrera? (bis)

B. Gaztelumendi

Luzea da dauzkazun
 zeregin zerrenda
 zu behin *Goenkaleko*
 kaletik irtenda
Gran Hermano ikusten
 hasi zaite benga!
 hori sekula santan
 ez da bukatzen ta. (bis)

A. Arzallus

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/141d2k>

Gaia: Bartzelonan izan da joan den astean. Alan zuen izena, hamazazpi urte, transexuala zen eta bere buruaz beste egin du.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Gogoan daukat ez du aspaldi*

Ze inporta du neure gorputzak
ezpainak edo titiak?
Bakoitza gaude sortzetik dugun
patroi bati atxikiak
eta askotan ezin onartuz
beste baten edukiak
ezin ikusiz gabiltza nahiz ta
izan begi irikiak
eguneroko bizitzak dauzkan
inkisizio txikiak. (bis)

Nahi gabe edo nahita geuk ere
egin dugu gizartea
ta zenbat bala batek jotzean
ikasgelako atea?
Erdi libre da erdi zeharka
hari zernahi esatea
ta horra gero drama triste bat
mundu hontatik joatea.
Ta harek zuen kulpa bakarra
desberdina izatea. (bis)

Uste gabeko zauri horiek
min latz haundi bat dakarte
ni mutil gisa sortu ta hazi
ta esan liteke ze suerte
ez dut sekula problemik izan
ez naute kolpatu fuerte.
Hala ta guztiz Alanik ez dut
utzi nahi inoiz parte
bestela ere bizi leikela
ulertzen ez dugun arte. (bis)

A. Arzallus - M. Lujanbio

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/141e50>

Gaia: (*Eskura ematen dizkie, Maialeni harri bat eta Ametsi baso bat ur*).
Gaur egungo gizartea ulertzeko ez omen da nahikoa belaualdi arteko talka. Badirudi XXI. mendean badela bestelako talka bat. Badela jende modu solido bat, eta jendarte likido bat. Gatazka horretan dagoela. Bata erro, sineste, oinarri finko batzuei lotutako mundua, eta aldatzen dabilen eta bere formara egokitzen den mundu bat, lotura gabekoa.
Zuen posizio horietatik nola ikusten duzue gure herria?

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

M. Lujanbio

Gure herri harri hau zer dabil
aurea edo atzea?
Garai batean harri aroan
bazen bortxa ta trantzea.
Harrien garai hura joana
edo behintzat apaltzea.
Halere horrek ez du esan nahi
sendotasuna galtzea.

M. Lujanbio

Egia esan herri hau ez da
inoiz uretik aritu
baina metafora bezela bai
jaso det ta entenditu
hankak lurrian begiak urrun
ai izango bagenitu!
Ametsak, urak eta lurrinak
oinarriak behar ditu.

A. Arzallus

Baina gizarte aldaketa honek
baditu zenbait balio
nahiz euskaldunen likido hori
den erdi ur ta olio
zuk badakizu ura betitik
izan dela H₂O
eta herri zahar trinko horri
arnasa ematen dio.

A. Arzallus

Ura pasa zen lehen Gernikatik
Lizarratik, Garazitik
ta errezeloa heltzen zait neri
zure harrizko begitik
ta baso hau tapatu nahian
ari zara aspalditik
baina goitikan estaliz gero
alde egiten dut azpitik.

M. Lujanbio

Egia da bati dohai on batzuk urak dauzka bere kasa baina gaur jendearentzat dena da moda eta erraza dena likido dena da hartu kontsumitu eta pasa ez da gauz bera malgutasuna ta konsistentzi eskasa.

A. Arzallus

Agian bien juntura bat da etorkizunen atari zu beti zabiltz lehengo histori ta mito zaharren kantari ta garrantzi hori emanaz izanaren epikari harri hori eusten ez ote zaizu besoa nekatzen ari?

M. Lujanbio

Egia da ari naiz nekatzen ta zenbat indar eskasi baina zerbait lortu nahi duenak behar du neka arazi funtzioa bilatu behar zaio non den egokien kasi besteri botatzeari utzi eta eraikitzen hasi.

A. Arzallus

Ta eraikitzen hasteko trukoak zein dira adiskidea? Igurtzi eta desegin zazu zure harri haundi, mehea gure eraikuntza horretan hara ura da nere idea zeren ta hitzak uraren gisa egin dezake bidea.

M. Lujanbio

Urak bere bidea egiten du ta hitzak bidea bete harria ere beti ez dago pisu zurrunaren menpe. Utzi ezker sinestu ezker nahiz sortzen dun nahiko neke harriak norberak nahi dun forma hartzera bihur liteke.

A. Arzallus

Bai ni naiz boto aldakor bat ta ni naiz gazte piloa nahi duen gisan orrazten dena bigote edo biloa. Tira ur pixka't botako dizut hau da nere zepiloa ta horrela igual edukiko du harri zahar horrek *brilloa*.

SARIKETAK

GETXO (2015-02-20)

Abra Saria (14. 2015. Getxo)

*Bertsolariak: M. Arzallus, A. Azpiroz, N. Cortada,
B. Gaztelumendi, N. Ibarzabal, E. Igartzabal, J. Martin
eta J. Uria.*

Gai-emailea: Beñat Vidal

M. Arzallus – A. Azpiroz

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/141f7c>

Gaia: Ama-alabak zarete. Maddalen ama eta Asier alaba. Jubilatu berria zara Maddalen, eta senarrarengandik banatzea erabaki duzu. Gaur eman diozu alabari horren berri.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Espainian behera*

A. Azpiroz

Ia berrogei urtez
aitakin antzera
biok elkarbanatu
zenduten etxera.
Berria jaso det ta
sorpresa hauxe da
berriz ere soltera
moduan jartzera
hirurogei urtekin
gaztetu al zera? (bis)

M. Arzallus

Eta egin al zaizu
hain harrigarria?
Orain egin nahi nuke
ongietorria
Eder dut aurpegia
lirain dut gerria
ta lotsati masailak
batzutan gorria.
Emakume zaharra ta
bizitza berria. (bis)

A. Azpiroz

Emakume zaharra ta
 gazte aldartea
 nahi zenduke soltera
 berriz izatea
 ta aitarekin hautsi
 daukazun katea
 ba hori nahi badezu
 egin ta pakea!
 Orain tokatzen zaizu
 aitari esatea. (bis)

M. Arzallus

Baina alde egin nahi dut
 nik azkar hemendik
 maletak ate ondoan
 daduzkat jadanik
 eta ez dut hartu nahi
 horrelako lanik.
 Horren seme prestua
 ta ona izanik
 esango zeniola
 pentsatzen nuen nik. (bis)

A. Azpiroz

Aitakin ein ondoren
 bizitza xumea
 iritsi omen zera
 zu ere honea
 ezer esan be hanka!
 Hau al da gunea?
 Baina horrelakorik
 ez emakumea!
 Gauza bat da gaztea
 bestea umea. (bis)

M. Arzallus

Baina gauzak argiki
 esatera goazen:
 beti nabil builaka
 errietan ozen
 orain alde egingo dut
 hemendikan zuzen
 zu harriturik zaude
 ze umea naizen.
 Urte asko pasa dut
 bi umeak zaintzen. (bis)

DONOSTIA (2015-03-27)

Orixe Saria (16. 2015. Donostia, Añorga)

*Bertsolariak: M. Artola, N. Gabilondo,
X. Legarreta "Arano", A. Lizarralde, A. Oiartzabal
"Xamoa" eta X. Sukia.*

Gai-emailea: Unai Gaztelumendi.

X. Legarreta "Arano" - A. Oiartzabal "Xamoa"
<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/1411lk>

Gaia: Bi euskal preso zarete. Kartzelako patioan zaudetela jaso duzue azken atxiloketen berri.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Nahiz ta hiltzea derrigorra den*

Xamoa

Hainbeste urtez izanagatik
Euskal Herria urruna
handik iristen zaiguna ez da
sekula izan lurruna
pentsatu zein den konfliktiboa
izaera euskalduna
atxilotzeko motibo dela
gurekiko maitasuna.

X. Legarreta

Pentsamentuak joaten zaizkit
familira ta sendira
hiru gazteren atxiloketak
gu gauzka hara begira.
Hau egoera tristea ez al da?
Noiz arteraino da, tira?
Gu ez gaituzte aterako ta
berriak etortzen dira.

Xamoa

Baina herrian ez dute falta
borrokatzeko kemenik
ez dakit hala ote den baina
hala uste nahi nuke nik.
Hain zuzen ere ez dagolako
betikotasun kondelik
ez da kartzelik herri oso bat
kabitu litekeenik.

X. Legarreta

Herri oso bat sartzen zaila da
baina hor dago atakea
bilatzen dute horretarako
zirrikutua, tartea.
Beraiek hola dirauten arte
hain zaila dago pakea
preso hartzeko nahikoa baita
euskalduna izatea.

Xamoa

Eta hain zuzen euskalduntasun
hortatik nor dago salbu?
Gudari izan behar genuenak
egin gaituzte soldadu
berdin da zertan ote zabiltzan,
presondegira bialdu.
Nonbait justizi espainiarrak
norabide bakarra du.

X. Legarreta

Norabidea aldatzea da
Euskal Herriaren plana
baina orain arte bezala joanda
zaila dago panorama
gazte hoiek dute beren itzala
eta sententzia bana
guri tokatzen zaigu egitea
psikologoaren lana.



Ahoa bete hots

Villabona, 2015-07-03

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

GABIRIA (2015-04-11)

Osinalde Saria (44. 2015. Gabiria)

*Bertsolariak: E. Artetxe, J. Gurrutxaga, X. Igoa,
O. Iguaran, E. Martikorena eta G. Urteaga.*

Gai-emailea: Eñaut Asurabarrena.

E. Martikorena

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/141g9o>

Puntuak erantzuten

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

E. Asurabarrena
Berziklatzen al dezu
etxean zaborra?

E. Martikorena
Hernanin hortan denok
aitzen gera horra!
Batzuk diote ia
hoi dela zigorra
baina ohitu ezkerro
ez da ez gogorra.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Aranora joan ziran I*

E. Asurabarrena
Horrela kontsumitzen
jarraitu ezkerro

E. Martikorena
nola gizarte hau dagon
burutikan ero
laupabost mundu behar
diteu egunero
etorkizun haundirik
ez zazu espero.

E. Martikorena – X. Igoa

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/141hc4>

Gaia: Eñaut, artzain hasiberria zara eta ilusioz gainezka zaude. Xabier, zuk bizitza osoa daramazu artzaintzan, eta etsita zaude, ez baituzu etorkizunik ikusten.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Goizian goizik jeiki ninduzun I*

E. Martikorena

Urteak dia lanpostu hontan
egin zinala nazkatu
eta ni berriz lehengo astean
Arantzazun naiz prestatu.
Lasai ez dago bate problemik
dena utzi, jubilatu.
Gaztek bagatoz ta seitzeagatik
behintzat ez zaitez kezkatu.

X. Igoa

Inguratu nahi du kaka usaiz
mila bildots eta ardiz
nire artalde haundia ikusi
eta begi biek diz-diz.
Ez dizut orain esan behar nik
“Ez sartu honetan” berriz
baina honetan sartu aurretik
pentsa ezazu bi aldiz.

E. Martikorena

Pentsatzen luze aitu izan naiz
det erabaki argia
bada garaia pausoa eman
erakutsiz ausardia.
Lasai nik gobernatuko ditut
bildotsa eta ardia
alperrik galtzen ezin utzi ba
horrelako belardia.

X. Igoa

Beraz zuk hartu behar duzula
nik utzitakoa aurren
belardi hontan nahiko dituzu
ardi guzti hoiek jaten
ezin delako hasitakoa
hala bat-batean eten.
Belardiak oso politak dira
ez dute diruik ematen.

E. Martikorena

Nik helbururik ez dakat bate
heltzeko aberastera
ez det bizi nahi Moncloa aldean
bizitzen diren antzera
baina kontzientzia lasai eukiz
buelatu nahi det ohera
ta lasai segi esan deten gisan
gazteok aituko gera.

X. Igoa

Nahiz hasieran hautuarekin
nik belztu dudan kopeta
etorri zaite baserrira ta
ikasi zazu puñeta!
Badu gogoa gazte honek ta
bere barruan gordeta
ezin ukatu zu etortzeak
ilusioa ein dit eta.

G. Urteaga

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/141ieg>

Gaia: Gaitz bat diagnostikatu dizute. Horretarako sendagairik bada, baina ez da osasun publikoan sartzen, eta ez duzu ordaintzeko dirurik.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Aita izena kanta beharrak*

Diagnostikau berri didate
gaitz bat benetan krudela
nere gainera jauzi berri da
berebiziko pastela.

Laguntzarikan niregana ez
omen da helduko bela
aurrera nola demontre egin
behar ote dut horrela?

Ta txarrena da ni bezalaxe
jende asko dagoela.

Beraien mila lege zikin ta
beraien hainbeste arau
nahi duten dena egiten dute
nahi dutena kendu ri-rau.

Ta bitartean gizartearen
gaitzak tamalez hor dirau.
Egia esan behar baldin badut
ja lotsagarria da hau
gaixotasunak ez nau hil behar
gobernuak hil behar nau.

ZARAUTZ (2015-09-04)

Lizardi Saria (39. 2015. Zarautz)

*Bertsolariak: G. Urteaga, H. Mujika, O. Iguaran,
O. Iurreamendi, M. Arregi eta A. Salegi.*

Gai-emailea: Felix Zubia.

M. Arregi – H. Mujika

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/141jgs>

Gaia: Klausurako mojak zarete, Haritz eta Maider. Zuk, Haritz, urteak daramatzazu moja-etxetik irten gabe. Maider erosketak egitera irteten da, eta badakizu herrian buelta bat egiteko aprobetxatzen duela. Oraintxe iritsi da buelta egitetik eta irribarrez sartzen ikusi duzu.

Neurria: Seiko motza

Doinua: *Aresoarren bandera / Aizak hi mutil mainontzi*

H. Mujika

Zu kalera egunero
astero eta hilero
eta gaurkoan hain irripartsu
sartu zera bero.
Ni fedearen bezero
hemen irten gabe edo
akaso ez naiz berriz sartuko
behin atera ezker. (bis)

M. Arregi

Irten ezker akabo
esan duzu baina klaro
ni irten naiz ta gizon batekin
bi ordu igaro.
Naiz iruditu arraro
ni konbentzituta nago
Sor Zezilia gure Jainkoa
gure herrian dago. (bis)

H. Mujika

Dena konta dezakezu
baina zenbat konpromezu!
Gizon batekin gurutzatuak
horrenbeste mezu.
Gaur pekatari zaude zu
ez fede ta ez errezu
argi ibili zuk infernuan
bukatuko dezu! (bis)

M. Arregi

Ta infernua jakina
da etorkizun gordina
baina azalpen bat baretu dadin
zure barne mina:
etxe edo kale iskina
ta pizten dit barne grina
bizar ta guzti nik zin dagizut
Jesusen berdina. (bis)

H. Mujika

Igual guretzat kaltian
gaude loturik katian
ta gero asko ez da itzultzen
kanporantz hastian.
Argi ibili parkian
ta elizako atian
gizonak aita egin nahi baitu
aitaren batian. (bis)

M. Arregi

Itzuli naiz konbentura
ta beraz ez du ardura
ni hemen nago nahiz lehen kalean
ibili gustura.
Kristautasunaren muga
ez ote dugu gertu ba?
Gure ideiak kaleratzeko
ordua heldu da. (bis)



*Kapulana bat zintzilik
Villabona, 2015-10-06*

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

O. Iurreamendi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/141kj8>

Gaia: Badakizu hau dela zure azken aukera.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Larunbata izaten da
maitasunaren azoka
batzuk elkarri begira
ta besteak elkar joka.
Nik aspalditik neska bat
baneukanez begiz jota
nere kuadrillako denek
zortetik onena opa.
Banijoa beregana
nahiz nerbioak oztopa
bere aurrean trabatu
erori, kubata bota
baina ez du asko axola
neri begira dago ta. (bis)

Sentitzen det ditudala
bihotz barruan bi tiro
nere haserako planak
eman ditu zortzi jiro.
Lotsagorritan jartzen naiz
begiratzen dut aldiro
lurrera erori naiz ta
orain dena negatibo.
Etxera noa korrika
badet hamaika motibo
nahiz ta saiatu izanak
autoestimua igo
hurrengo larunbatian
saiatu behar det berriro. (bis)

Astebete igaro da
berriz ere larunbata
eta ibiliko gera
taberna hortan bueltaka.
Inoiz ez da lagungarri
tabernetako zarata
baino lotsa gordeko det
eta beldurra aguanta.
Oraingoan lortuko det
hau azken aukera da ta
eta hortxe hasiko naiz
belarrondoan esaka
“Aizu, hartu nahi al dezu
lehengo asteko kubata?”. (bis)



Bertsoak herriko jaietan

Zumaia, 2015-04-10

Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ)

SAIOEN AURKIBIDEA

or.

AMURRIO (2015-01-03)	71
A. Arzallus, S. Colina, I. Elortza, B. Gaztelumendi, U. Iturriaga, M. Lujanbio, A. Mendiluze	
OÑATI (2015-01-05)	74
A. Arzallus, A. Egaña, M. Arzallus, J. Maia, F. Paia eta J. Uria.	
IRUN (2015-01-08)	77
U. Casado, N. Ibarzabal, J. Martin, J. Zelaleta	
ZEANURI (2015-01-18)	82
S. Colina, A. Egaña, I. Elortza, On. Enbeita, U. Iturriaga, E. Lekue	
TOLOSA (2015-01-24)	84
M. Amuriza, A. Arzallus, S. Lizaso, M. Lujanbio, J. Maia, A.M. Peñagarikano	
DONOSTIA (2015-01-31)	94
U. Iturriaga, U. Agirre, N. Ibarzabal, A. Martin, M. Lujanbio, a. Mendiluze, N. Elustondo, E. Lazkoz, O. Enbeita, S. Colina, A. Egaña, A. Arzallus	
IRUN (2015-02-05)	96
O. Barroso, B. Gaztelumendi, K. Aizpurua, I. Zelaia	
LEZO (2015-02-07)	98
B. Gaztelumendi, On. Enbeita, J. Maia, A. Egaña	
ANDOAIN (2015-02-22)	102
A. Mendiluze, A. Martin, B. Gaztelumendi, A. Agirre, J. M. Irazu, U. Muñoa	
GASTEIZ (2015-02-26)	105
M. Agirre, M. Amuriza, I. Anda, A. Arzallus, J. Maia, J. Uria	
ALEGIA (2015-03-08)	109
U. Alberdi, M. Amuriza, Ane Labaka, Jone Uria	
GASTEIZ (2015-03-21)	114
M. Agirre, Z. Enbeita, X. Igoa, O. Perea, R. Sanchez, I. Viñaspre	
BERGARA (2015-03-27)	115
U. Alberdi, O. Bartra, A. Egaña, U. Iturriaga, I. Zubeldia	
ELIZONDO (2015-03-28)	118
O. Estanga, E. Fernandez, A. Fuentes “Itturri”, A. Karrika, E. Lazkoz, J. Soto, X. Terreros “Terre”, J. Zelaleta	
ZUMAIA (2015-04-10)	119
M. Arzallus, A. Egaña, U. Iturriaga, S. Lizaso, J. Maia, F. Paia	

BAIONA (2015-04-18)	121
M. Lujanbio, A. Mendiluze, A. Sarriegi, A. Arzallus, S. Colina, I. Elortza, B. Gaztelumendi, U. Iturriaga	
ABADIÑO (2015-04-30)	123
S. Colina, B. Ugartetxea, J. Soto, M. Lujanbio	
GASTEIZ (2015-04-30)	126
I. Anda, J. Uria, U. Alberdi, M. Amuriza, M. Sarasua, O. Perea	
GASTEIZ (2015-05-08)	128
M. Agirre, A. Solozabal, I. Mendiguren	
VILLABONA (2015-05-09)	130
A. Egaña, A. Arzallus, I. Elortza, M. Lujanbio, A. Mendiluze, A. Sarriegi, A. Labaka	
MUSKIZ (2015-06-20)	132
N. Cortada, A. Estiballes, F. Paia, J. Uria	
ANDOAIN (2015-06-24)	135
A. Egaña, M. Lujanbio, S. Colina, A. Laburu, A. Martin, A. Mendiluze	
GETXO (2015-07-08)	137
A. Egaña, M. Lujanbio, J. Maia, A. Martin, A. Mendiluze, F. Paia, X. Paya, J. Uria	
VILLABONA (2015-07-25)	142
A. Egaña, J. Soto, M. Lujanbio, O. Iguaran, A. Laburu, A. Arzallus	
ALTZO (2015-08-02)	146
M. Lujanbio, M. Artola, S. Colina, U. Iturriaga, A. M. Peñagarikano, S. Lizaso	
ETXARRI-ARANATZ (2015-08-03)	151
U. Alberdi, E. Lazkoz, M. Lujanbio, F. Paia	
LEITZA (2015-08-13)	153
I. Zubeldia, M. Lujanbio, S. Colina, J. Soto	
DONOSTIA (2015-09-05)	155
U. Alberdi, M. Amuriza, A. Arzallus, A. Egaña, B. Gaztelumendi, J. Maia	
EIBAR (2015-09-07)	157
S. Lizaso, U. Agirre, A. Egaña, J. Maia	
BERMEO (2015-09-10)	159
U. Alberdi, A. Arzallus, F. Paia, A. Egaña	
ALKIZA (2015-09-11)	163
A. Egaña, S. Lizaso, A.M. Peñagarikano, M. Lujanbio, A. Arzallus, A. Agirre.	

ALEGIA (2015-09-12)	167
M. Artola, I. Gorostazu, O. Iguaran, I. Irazustabarrena, U. Mendizabal, H. Mujika.	
ELORRIO (2015-09-13)	169
U. Iturriaga, E. Lekue, M. Amuriza, I. Ibarra	
OÑATI (2015-10-02)	174
A. Goitia, M. Lujanbio, A. Arzallus, A. Laburu, A. Mendiluze, M. Arregi	
UREPEL (2015-10-11)	178
J. J. Eizmendi “Loidisaletxe II”, J. L. Gorrotxategi, S. Lizaso, A. Arzallus	
DURANGO (2015-10-16)	180
U. Iturriaga, S. Colina, U. Agirre, A. Agirre, O. Bartra, J. Maia	
IRUÑEA (2015-10-29)	182
M. Lujanbio, S. Colina, U. Iturriaga, J. Zelaia, E. Fernandez, J. Soto	
ERMUA (2015-10-30)	187
F. Zelaia, B. Gaztelumendi, J. Maia, O. Bartra, U. Alberdi, A. Martin	
AURITZ (2015-10-31)	189
A. Arzallus, S. Colina, M. Lujanbio, J. Soto	
IRUÑEA (2015-11-12)	194
U. Alberdi, A. Arzallus, A. Fuentes “Itturri”, A. Karrika, E. Lazkoz, J. Maia	
LEGAZPI (2015-11-20)	197
I. Zubeldia, S. Colina, M. Lujanbio, N. Elustondo	
MARKINA-XEMEIN (2015-12-08)	201
A. Egaña, F. Paia, M. Lujanbio, A. Arzallus, U. Alberdi, J. Soto	
DONOSTIA (2015-12-19)	208
U. Agirre, I. Apalategi, B. Gaztelumendi, O. Iguaran, A. Laburu, J. Maia, A. Martin, A. Oiartzabal “Xamoa”.	
ORDIZIA (2015-12-26)	209
A. Martin, J. Maia, I. Apalategi, A. Oiartzabal “Xamoa”, O. Iguaran, B. Gaztelumendi, A. Laburu eta N. Elustondo	
ARAMAIO (2015-12-26)	212
J. M. Irazu, M. Agirre, I. Viñaspre, A. Egaña	
DURANGO (2015-12-30)	214
A. Arzallus, On. Enbeita, B. Gaztelumendi, M. Lujanbio	

BAT-BATEKO SARIKETAK

or.

GETXO (2015-02-20)

220

Abra Saria (14. 2015. Getxo)

M. Arzallus, A. Azpiroz, N. Cortada, B. Gaztelumendi, N. Ibarzabal, E. Igartzabal, J. Martin, J. Uria

DONOSTIA (2015-03-27)

222

Orixe Saria (16. 2015. Donostia, Añorga)

M. Artola, N. Gabilondo, X. Legarreta"Arano", A. Lizarralde, A. Oiartzabal "Xamoa", X. Sukia

GABIRIA (2015-04-11)

224

Osinalde Saria (44. 2015. Gabiria)

E. Artetxe, J. Gurrutxaga, X. Igoa, O. Iguaran, E. Martikorena, G. Urteaga

ZARAUTZ (2015-09-04)

227

Lizardi Saria (39. 2015. Zarautz)

G. Urteaga, H. Mujika, O. Iguaran, O. Iurreamendi, M. Arregi, A. Salegi

BERTSO-ALDI HAUTATUAK

CDan eta <http://bdb.bertsozale.eus>

2015-01-03 AMURRIO

A. Mendiluze

2015-01-18 ZEANURI

U. Iturriaga eta I. Elortza

2015-01-24 TOLOSA

M. Amuriza

A.M. Peñagarikano

2015-01-31 DONOSTIA

M. Lujanbio

2015-02-17 LEZO

B. Gaztelumendi eta O. Enbeita

2015-02-22 ANDOAIN

J. M. Irazu eta A. Mendiluze

B. Gaztelumendi eta A. Martin

2015-02-26 GASTEIZ

M. Agirre, M. Amuriza, I. Anda, A. Arzallus, J. Maia eta J. Uria

2015-03-08 ALEGIA

M. Amuriza, J. Uria. A. Labaka eta U. Alberdi

U. Alberdi

2015-03-21 GASTEIZ

M. Agirre

2015-03-23 BERGARA

U. Alberdi eta I. Zubeldia

O. Bartra

2015-03-28 ELIZONDO

J. Soto

2015-04-18 BAIONA

I. Elortza eta A. Sarriegi

2015-04-30 GASTEIZ

O. Perea eta M. Amuriza

2015-05-09 VILLABONA

A. Egaña

2015-06-20 MUSKIZ

A. Estiballes

2015-07-08 GETXO

A. Martin eta J. Uria

X. Paya eta A. Mendiluze

2015-07-25 VILLABONA

A. Laburu, J. Soto eta M. Lujanbio

2015-08-13 LEITZA

I. Zubeldia, S. Colina, M. Lujanbio eta J. Soto

2015-09-05 DONOSTIA

M. Amuriza

2015-09-07 EIBAR

S. Lizaso, U. Agirre, A. Egaña eta J. Maia

2015-09-10 BERMEO

A. Egaña, U. Alberdi, A. Arzallus eta F. Paia

2015-09-11 ALKIZA

M. Lujanbio eta A. agirre
A. Agirre

2015-09-13 ELORRIO

M. Amuriza eta U. Iturriaga
E. Lekue eta U. Iturriaga

2015-10-02 OÑATI

M. Arregi eta A. Laburu

2015-10-11 UREPEL

A. Arzallus

2015-10-16 DURANGO

A. Agirre eta O. Bartra

2015-10-29 IRUÑEA

U. Iturriaga eta E. Fernandez
U. Iturriaga eta J. Soto
E. Fernandez, J. Zelaieta eta S. Colina

2015-10-30 ERMUA

B. Gaztelumendi

2015-10-31 AURITZ

M. Lujanbio, J. Soto eta S. Colina
M. Lujanbio eta A. Arzallus
M. Lujanbio eta S. Colina

2015-11-12 IRUÑEA

A. Karrika eta A. Arzallus

2015-12-08 MARKINA

U. Alberdi eta A. Egaña

F. Paia

M. Lujanbio eta U. Alberdi

A. Egaña eta J. Soto

2015-12-19 DONOSTIA

B. Gaztelumendi

2015-12-30 DURANGO

A. Arzallus eta M. Lujanbio

A. Arzallus

BAT-BATEKO SARIKETAK

2015-02-20 GETXO

M. Arzallus eta A. Azpiroz

2015-04-11 GABIRIA

E. Martikorena

G. Urteaga

2015-09-04 ZARAUTZ

M. Arregi eta H. Mujika

O. Iurreamendi

LIBURUAN BERTSORIK DUTEN BERTSOLARIEN AURKIBIDEA

Agirre, A.	163 (BI), 165 (PE), 180(BI)
Agirre, M.	105 (BI), 114 (B), 128 (BI)
Agirre, U.	157 (BI)
Alberdi, U.	110 (BI), 112 (B), 115 (BI), 151 (BI), 155 (B), 159 (B), 161 (BI), 201 (BI), 205 (BI)
Amuriza, M.	84 (B), 105 (BI), 110 (BI), 126 (BI), 169 (BI)
Anda, I.	105 (BI)
Arregi, M.	174 (BI), 227 (BI)
Artola, M.	146 (BI)
Arzallus, A. ..	74 (BI), 89(PE), 105 (BI), 107 (B), 108 (BI), 161 (BI), 179 (B), 191 (BI), 195 (BI), 216 (B), 217 (BI)
Arzallus, M.	74 (BI), 220 (BI)
Azpiroz A.	220 (BI)
Barroso, O.	96 (BI)
Bartra, O.	117 (B), 180 (BI)
Colina, S.	72 (PE), 123 (BI), 146 (BI), 153 (BI),185 (BI), 189 (BI), 193 (BI)
Cortada, N.	134 (BI)
Egaña, A.	74 (BI), 130 (B), 135 (BI), 157 (BI), 161 (BI),201 (BI), 206 (BI)
Elortza, I.	72 (PE), 82 (BI), 121 (BI)
Elustondo, N.	197 (B) 209 (BI)
Enbeita, On.	98 (BI) 214(BI)
Estiballes, A.	132 (BI) 134 (BI)
Fernandez,E.	182 (BI), 185 (BI)
Gaztelumendi, B.	96 (BI), 98 (BI), 100 (BI), 104 (BI), 187 (B), 208 (B), 214 (BI)

Goitia A.....	177 (BI)
Ibarra, I.	172 (BI)
Ibarzabal, N.....	79 (B)
Igoa, X.....	225 (BI)
Iguaran O.	209 (BI)
Irazu, J.M.	102 (BI), 212 (B)
Iturriaga, U.	82 (BI), 149 (BI), 169 (BI), 171 (BI), 172 (BI), 182 (BI), 184 (BI)
Iurramendi O.....	229 (B)
Karrika, A.....	195 (BI)
Labaka, A.	110 (BI)
Laburu, A.	142 (BI), 174 (BI)
Lazkoz, E.	151 (BI)
Legarreta X.	222 (BI)
Lekue, E.	171 (BI)
Lizaso, S.	74 (BI), 89 (PE), 119 (BI), 146 (BI), 157 (BI)
Lujanbio, M.	95 (B), 142 (BI), 149 (BI), 153 (BI), 163 (BI), 189.(BI), 191 (BI), 193 (BI), 199 (BI), 205 (BI), 217 (BI)
Maia, J.	92 (BI), 100 (BI), 105 (BI), 108 (BI), 157 (BI)
Martikorena E.	224 (PE), 225(BI)
Martin, A.	104 (BI) 135 (BI), 137 (BI), 207 (BI)
Martin, J.	77 (B)
Mendiguren I.....	128 (BI)
Mendiluze, A.	71 (B), 102,(BI), 140 (BI), 177 (BI)
Mendizabal, U.	167 (BI)
Mujika H.....	167 (BI), 227 (BI)
Paia, F.	119 (BI), 132 (BI), 161 (BI), 203 (B)

Paya X.....	140 (BI)
Peñagarikano, A.M.	84 (B), 92 (BI), 149 (BI)
Perea, O.....	126 (BI)
Sarriegi, A.	121 (BI)
Solozabal A.	128 (BI)
Soto, J.	118 (B), 142 (BI), 153 (BI), 184 (BI), 189 (BI), 206 (BI)
Ugartetxea, B.	123 (BI)
Uria, J.	105 (BI), 110 (BI), 137 (BI)
Urteaga G.....	226 (B)
Xamoa	222 (BI)
Zelaieta, J.	185 (BI)
Zubeldia, I.....	115 (BI), 153 (BI), 199 (BI)

IKURRAK:

(B): Gaia emanda bakarka egindako saioa.

(BI): Gaia emanda binaka -edo talde handiagoan- egindako saioa.

(P): Puntutan egindako saioa.

(PE): Lehen edo azken puntua emanda egindako saioa.

(H): Gainerako ariketak

(GL): Gai librean egindako saioa.

IZEN ETA IZENGOITIEN DESKRIBAPENA

Zerrenda hau liburuan agertzen diren izen laburdura eta izengoitiei dagokie.

Liburuan	Izen deiturak	Herria
Agirre, A.	Amaia Agirre Arrastoa	Villabona
Agirre, M.	Manex Agirre Arriolabengoa	Aramaio
Agirre, U.	Unai Agirre Goia	Hernani
Alberdi, U.	Uxue Alberdi Estibaritz	Elgoibar
Amuriza, M.	Miren Amuriza Plaza	Berriz
Anda, I.	Irati Anda Villabuena	Gasteiz
Arregi, M.	Maider Agirre Markuleta	Oñati
Artola, M.	Mikel Artola Izagirre	Alegia
Arzallus, A.	Amets Arzallus Antia	Hendaia
Arzallus, M.	Maddalen Arzallus Antia	Hendaia
Azpiroz A.	Asier Azpiroz Iztueta	Donostia
Barroso, O.	Odei Barroso Gomila	Urruñ
Bartra, O.	Oihana Bartra Arenas	Bilbo
Casado U.	Urko Casado Usandizaga	Astigarraga
Colina, S.	Sustrai Colina Akordarrementeria	Urruñ
Cortada, N.	Nuria Cortada Ibañez	Muskiz
Egaña, A.	Andoni Egaña Makazaga	Zarautz
Elortza, I.	Igor Elortza Aranoa	Durango
Elustondo, N.	Nerea Elustondo Plazaola	Legazpi
Enbeita, On.	Onintza Enbeita Maguregi	Muxika
Estiballes, A.	Arkaitz Estiballes Ormaetxea	Galdakao
Fernandez,E.	Eneko Fernandez Maritxalar	Lesaka
Gaztelumendi, B	Beñat Gaztelumendi Arandia	Donostia
Goitia A.	Andoni Goitia Etchezarreta	Oñati
Ibarra, I.	Iratxe Ibarra Foruria	Markina-Xemein
Ibarzabal, N.	Nerea Ibarzabal Salegi	Markina- Xemein
Igoa, X.	Xabier IgoaEriz	Aramaio
Iguaran O.	Oihana Iguaran Barandiaran	Villabona
Irazu, J.M.	Jexux Mari Irazu Muñoa	Larraul

Iturriaga, U.	Unai Iturriaga Zuaza-Artaza	Durango
Iurramendi O.	Oier Iurramendi Etxeberria	Donostia
Karrika, A.	Aimar Karrika Iribarren	Auritz
Labaka, A.	Ane Labaka Mayo	Lasarte
Laburu, A.	Agin Laburu Rezola	Astigarraga
Lazkoz, E.	Eneko Lazkoz Martinez	Etxarri-Aranatz
Legarreta X.	Xabier Legarreta Etxarri	Arano
Lekue, E.	Etxahun Lekue Etxebarria	Larrabetzu
Lizaso, S.	Sebastian Lizaso Iraola	Azpeitia
Lujanbio, M.	Maialen Lujanbio Zugasti	Hernani
Maia, J.	Jon Maia Soria	Zumaia
Martikorena E.	Eñaut Martikorena Lizaso	Hernani
Martin, A.	Alaia Martin Etxebeste	Oiartzun
Martin, J.	Jon Martin Etxebeste	Oiartzun
Mendiguren I.	Izar Mendiguren Cosgaya	Laudio
Mendiluze, A.	Aitor Mendiluze Gonzalez	Andoain
Mendizabal, U.	Unai Mendizabal Jauregi	Zizurkil
Mujika H.	Haritz Mujika Lasa	Asteasu
Paia, F.	Alfredo Paia Ruiz "Fredí"	Getxo
Paya X.	Xabi Paya Ruiz	Getxo
Peñagarikano, A.M.	Anjel Mari Peñagarikano	Anoeta
Perea, O.	Oihane Perea Perez de Mendiola	Gasteiz
Sarriegi, A.	Aitor Sarriegi Galparsoro	Beasain
Solozabal A.	Ander Solozabal Kortabarria	Gasteiz
Soto, J.	Julio Soto Ezkurdia	Gorriti
Ugartetxea, B.	Beñat Ugartetxea Ostolaza	Mallabia
Uria, J.	Jone Uria Albizuri	Getxo
Urteaga G.	Urteaga Garmendia Gemma	Beasain
Xamoa	Arkaitz Oiartzabal Agirre	Oiartzun
Zelaieta, J.	Julen Zelaieta Iriarte	Bera
Zubeldia, I.	Iker Zubeldia Katarain	Zegama

Bapatean2015



Bapatean 2015